

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA 91



*Bertsolari Elkarte* - ELKAR



Kazabaien  
J. Deiransoloren

Sarrera  
Erabilgarria

ER 1536

XENPELAR DOCUMENTAZIO  
ZENTROA  
ERRETERIA

## Gipuzkoako Bertsolari

368 - bertso berru saiatakat  
hauek 48. Agur eta besteak  
puntuatuak

1.400 pta.

1.000 ale

2 kasete 1000 ale x 1.400 pta

16 - doinu bertsoan Petron  
aldiz erabiliak

123 doinu txapelketan erabiliak

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren  
laguntza jaso du.

© ELKAR S.A. - Donostia. 1992

© EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA - GIPUZKOA

L.G. NA-230/1992

ISBN 84-7917-111-1

ELKAR S.A. Argitaletxea

Esterlines, 10 - Tel. 426319

20003 Donostia

Pannecau, 52 - Tel. 59254390

64100 Baiona

Inprimatzailea: Graficas Lizarra, S.L., Tafallarako bidea 1. km - LIZARRA (Nafarroa)

# Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 1991

*Antolatzailea:*

Bertsolari Elkartea - Gipuzkoa

*Babesle nagusia:*

Gipuzkoako Foru Aldundia

*Bertso transkribaketa:* Aitziber Altuna

*Azala:* Jesus Lukas

*Argazkiak:* Joxantxo Egaña

*Doinuen izendapena:* Joanito Dorronsoro

*Jorrocketak:* Joxantxio Ormazabal - Zaldubi

ELKAR/EHBE



## **ESKERRAK EMANEZ**

*Ospatu da "Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91". Kanpotik jarraitzen duzuenontzat ekitaldi bat gehiago besterik ez zen izango agian, baina hasera-haseratik, ia urte osoan zehar, bilerak egin, arazoak aztertu, erabakiak hartu, antolakuntza zehaztu e.a. rretan buru-belarri aritu garenok hartu dugu atsedenaldi eta lasaitu ederrik txapelketa hau bukatu ikusi dugunean.*

*Lerrook, bileraz-bilera, saioz-saio, arazo-arazo gauzak bideratuz hainbat eta hainbat lan eskaini duen jende guztiaren aipamen berezi eta goratzarrez idazten ditugu batipat, hau da, ahalegi-naren bidez borondatea gainezka erakutsi dutenentzat: antolamendu lanetan etengabe ihardun diren denak, gai-prestatzaileak, aurkezleak, epaimahaikoak, idazkariak, e.a. Eskerrik beroenak guztiei.*

*Eskertu nahi ditugu baitere, beren dirulaguntzaren bitartez txapelketa honen antolaketa erraztu duten erakundeak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Antzuloa, Deba, Usurbil, Aretxabaleta, Hondarribia, Beasain, Azkoitia, Oiartzun, Eibar, Tolosa, Oñati eta Donostiako Udalak.*

*Ezin ahaztu, parte hartu duten bertsolariak, saioz-saio gurekin izan dugun bertsozalea, eta txapelketa honen bitartez bertsolariaren oihartzuna areagotzen lagundu duten komunikabideak.*

*Esker anitz denei.*

**Zuzendaritza Taldea**  
**Bertsolari Elkarte - Gipuzkoa**





## HITZAURREA

*Behar bada, liburu bat ez da ahozko ihardun bat jasotzeko marko edo soporterik egokiena. Ahozko ihardun batek bere arauak ditu eta idatzizkoak bereak. Horregatik, bapatean kantatutako bertsoak idatzizko arauetara pasatzea ez da gauzarik egokiena, baina, erabat desegokitzat ere ezin joko dugu.*

*Gaur egun, oraindik badago zenbait arazo mintzameneko fonetika arauak idatzizko ortografiako arauekin lotzeko, baina, astakeria handiegirik gabe konpon daitezkeela uste dugu.*

*Liburuak beste hutsune batzu ere eduki ditzake bapateko saio bat jasotzerakoan: doinu, ahots, jendea, giroa, kantatzeko denbora, jendearekiko eragina,...*

*Bapateko saio bat paperera pasatzeak, beste arrisku bat ere ekar dezake: Bertsolariak, ahozkoatasuna ahaztuta, bertso idatziak, bertso jarriak kantatzera jo dezake, gero liburuan ondo eta txukun gera daitezzen, horrela, grazia, azkartasuna eta bizitasuna galduaz.*

*Baina liburuarekin batera zintak ere hor doazenez, batak bete beza bestearen hutsunea, elkar osatuz eta edertuz.*

*Kontuak kontu, eskuartean liburua dugunez, hona erabilpenari buruz zenbait ohar:*

- 1.- Besterik gabe, kantatuz gozatu, bertsoz-bertso, saioz saio, aurretik aldiko aukeraketa eginez.*
- 2.- Bertso bakoitza goitik behera aztertuz eta tripa atereaz:*
  - \* Bukaerako kolpea eta bertsoaren osotasuna.*
  - \* Neurria: hanka luzeak, hanka motzak, etenak...*
  - \* Errima: erraza, zaila, poto, poto klasea...*

\* *Euskara maila: normala, bizia, aldrebesa, aberatsa, figurarik (metafora, konparaketa...)*

\* *Gaia: Heldu dion/zaion ala ez  
Errimaren mende ala ez  
Saioaren eskema*

.....

\* *Ofizioa: Elkarrizketarik badagoen  
Bakoitzak berea egin duen*

.....

*Beraz, badu bertso bakoitzak aztergairik..*

3.- *Eta zergatik ez, azken aldian epaimahairako ere jendez urri antzean gabiltzanez, zenbait saio puntua ditzakezu aurreko aztergaien arauera, eta horrela, epaimahaiak emandako puntua-ketarekin konparatu.*

*Dena den, gure asmo bakarra, bertsozale horri bertso bilduma hau eskeintzea besterik ez da, eta bakoitzak ikusiko du nola erabili liburua. Hemengo bertso asko kontutan hartzekoak izango direlakoan gaude. Eta ez txapelketakoak direlako soilik, ale eder askoak badaudelako, eta erreferentzia bezala, buruz ikastekoak ere aurkituko dituzulako tartean. Bertsolaria estutzea ez da ona noski, baina, estuasun horrek ahalegina ere handitu egiten du, eta hori, bertsoaren eta bertsozalearen onerako da. Izan ere, txapelketa batean, bertso kaxkarrik entzuten da, baina baita ale eder frango ere, bertsolariak ere bai baitaki txapelketa marko eta aukera ezin hobea dela berrikuntza eta gainontzeko ahalegin guztiak plazaratzeko. Bihoaz beraz, batzuk besteen mesederako.*

**Antton Kazabon**

*Elkartekide eta Txapelketa honetako epaimahaikidea*

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAK

1959ko Azaroaren 8an ospatu zen, Eibarren, Gipuzkoako I. Bertsolari Txapelketa. Euskaltzaindiaren eskutik antolatutako txapelketa honetan ez zuten nahi zuten bertsolari guztiek parte hartzerik izan, garai haietan Gipuzkoan ospetsuenak ziren bertsolarien artean jokatzearabaki zelako, eta Manuel Olaizola "Uztapide"k eskuratu zuen txapela Joxe Joakin Mitxelena bigarren gertatu zelarik. Hauekin batera, eta beste batzuren artean, Txomin Garmendia, Manuel Lasarte —izatez nafarra bada ere Gipuzkoan bizi zen ordu-rako— Akilino Izagirre "Zepai", Joxe Lizaso eta Joxe Agirrek parte hartu ahal izan zuten. Iñaki Eizmendi "Basarri"k ez zuen parte hartu.

1962an ospatu zen Gipuzkoako II. Txapelketa. Euskaltzaindiak antolatutik, oraingo honetan, Gipuzkoako bertsolari guztiek izan zuten parte hartzeko aukera. Izena eman zuten 40ren artean hainbat kanporaketa jokatu ondoren, Hernanin jokatu zen finala Abenduaren 9an honoko hauen artean: Jesus Alberdi "Egileor", Akilino Izagirre "Zepai", Txomin Garmendia, Joxemiel Iztueta "Lazkao Txiki", Imanol Lazkano, Jose Luis Lekuona "Lexoti", Jose Joakin Mitxelena eta Manuel Uranga. Joxe Joakin Mitxelenak irabazi zuen eta "Lazkao Txiki" gaztea bigarren geratu zen. "Basarri" eta "Uztapide"k ez zuten parte hartu.

1964an jokatu zen inoiz jokatu den txapelketarik oparoena partehartzaile kopuruari dagokionez, 71 bertsolarik hartu zuten parte Gipuzkoako III. Bertsolari Txapelketan. Euskaltzaindiak antolatu zuen hau ere. Sei kanporaketa eta azken-aurreko saio bat jokatu ondoren, Abenduaren 13an jokatu zen finala, Tolosan. "Lazkao-

Txiki"k jantzi zuen txapela eta Txomin Garmendia izan zen bigarren Joxe Joakin Mitxelena, Joxe Intxausti, Patxi Etxeberria, Kaxiano Iburguren, Koxme Lizaso eta Joxe Ma Lertxundiren aurretik. "Basari" eta "Uztapide"k ez zuten oraingo honetan ere parte hartu.

1967an antolatu zuen Euskaltzaindiak bere azkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, IV. berau. 49 bertsolarik eman zuten izena, beren ohiturari jarraituz "Basari" eta "Uztapide"k ez zuten parte hartu, ezta Joxe Joakin Mitxelena eta "Lazkao Txiki"k ere, eta sei kanporaketa eta azken aurreko saio bat jokatu ondoren, Tolosan ospatu zen finala Maiatza 4ean. Bederatzi bertsolari lehiatu ziren finalean: Pedro Aizpurua "Lilibe", Patxi Etxeberria, Txomin Garmendia, Jose Luis Gorrotxategi, Joxe Intxausti, Koxme Lizaso, Fermin Muñoa, Xanti Zabala "Lexo" eta Nikolas Zendoia. Txomin Garmendiak irabazi zuen txapela Jose Luis Gorrotxategi bigarren geratu zelarik.

Txapelketa guzti hauek urte horietako Txapelketa Nagusietarako partehartzaileak hautatzeko antolatu ziren besteak beste, hemen bezala beste herrialdeetan ere.

1967ko Txapelketa Nagusia gertatu ziren zenbait istiluk, ondorio bortitzak izan zituen eta ondorengo 13 urteetan ez zen ez herrialdeetako txapelketa eta ez txapelketa nagusirik antolatu.

1980an ekin zitzaion Txapelketa Nagusia antolatzeari, Euskaltzaindiaren eskutik berriro ere, geroztik 1982, 86 eta 89an antolatu direlarik, azken bi hauek Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen eskutik, baina Gipuzkoak 1991 arte itxaron izan behar izan du bere V. Bertsolari Txapelketa ezagutzeko.

## GIPUZKOAKAO BERTSOLARI TXAPELKETA 91

1993an ospatuko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako ordezkariak hautatzeko lehiaketaren bat antolatu beharra zegoenez, eta Gipuzkoako Elkarteko Zuzendaritza Taldeak, bertsolari eta bertsozaleen arteko batzarrea egin ondoren, gehiengoaren oneritiz, 1991an txapelketa antolatzea erabaki zuen. Erabaki garrantzitsua zalantzarik gabe, 1967az geroztik ez zela antolatzen kontutan izanik (EHBE.k antolatutako aurreko bi Txapelketa Nagusietarako —1986 eta 1989— ordezkariak hautatzeko, kanporaketak antolatu ziren 1985 eta 1988an).

Jarrai an doaz Gipuzkoako V. Bertsolari Txapelketa honi dagozkion xehetasunak.

### EGITURA

Hemezortzi urtez goiko Gipuzkoako bertsolari guztiek izan dute txapelketa honetan parte hartzeko aukera.

Lau fasetan jokatu da:

**Kanporaketak.** 42 bertsolarik hartu dute parte, bost taldetan banatuta: izena eman duten guztiak 1989ko Txapelketa Nagusian finalerdietara eta finalera heldu zirenak ezik.

**Azkenlaurdenak.** 32 bertsolariren artean jokatu dira, lau taldetan banatuta: 1989ko Txapelketa Nagusiko sailkapenaren bitartez sailkatutako 12ak eta kanporaketatik sailkatutako 20ak.

**Azkenurrekoak.** Bi taldetan banaturik, Azkenlaurdenetatik sailkatutako 16 bertsolarien artean jokatu dira.

**Finala.** Azkenurrekoetan hautatutako zortzi bertsolariak jokatu dute.

#### TALDE OSAKETA

Fase bakoitzeko taldeak ez dira guztien arteko sortez osatu, maila desberdinetako taldeburuak izendatuz eta hauek sorteatuz baizik:

Kanporaketetan, 1989ko Txapelketa Nagusian azken laurdenetara heldu zirenak izan dira taldeburu, ondoren Gipuzkoako 1988ko Kanporaketan izandako emaitzak hartu dira kontutan, eta azkenik maila honetan inoiz parte hartu ez dutenak.

Azken laurdenetan, 1989ko Txapelketa Nagusian finalera eta azken aurrekoetara heldu zirenak izan dira taldeburu; ondoren, aurreko faseetik sailkatuak.

Azken aurrekoetan, bi talde egin direnez, lortutako sailkapenaren arabera, batean zenbaki inparak (1., 3., 5.,...) sartu dira eta bestean parak (2., 4., 6.,...)

#### SAILKATZE ETA PUNTUAKETA SISTEMA

Epaimahaikideek egun batetik bestera izan zitzaketen gora-beherak zuzendu nahieran, sailkatze sistema hau erabili da:

Azken laurdenetara pasatzeko, Kanporaketako talde bakoitzeko hiru lehenak (5 talde X 3) eta gainerakoetatik puntu gehien eskuratu dituzten bostak sailkatu dira.

Azken aurrekoetarako, Azken laurdenetako talde bakoitzeko hiru lehenak (4 talde X 3) eta gainerakoetatik puntu gehien eskuratu dituzten laurak sailkatu dira.

Finalerako, Azken aurrekoetako talde bakoitzeko hiru lehenak (2 talde X 3) eta gainerakoetatik puntu gehien eskuratu dituzten biak sailkatu dira.

Epaimahaikoek ez dute puntuaketarik erakutsi bapatean eta jendaurrean, halere puntuaketak ikusi nahi zituen eta dituen guztien eskura daude eta publiko ere egin dira.

Bertsoak banan bana puntuatu dira. Bertsoa entzun ala, epaimahaikideek beren puntuazioa idazkariari pasa diete hauen ardura izan delarik batuketak egin eta sailkapena burutzea.

Talde bakoitzeko sailkapena egiteko, epaimahaikideek emandako puntu guztien gehiketa eginik, gehien zituenetik gutxienera sailkatu dira bertsolariak. Berdinketa kasuan, epaimahaikide gehienek aurrean daukatenean alde erabaki da. Halere berdinketa jarraitu duen kasuan, kartzelako lanean puntu gehiena eskuratu dituenaren alde erabaki da.

#### BERTSOA EPAITZEKO ERIZPIDE NAGUSIAK

Epaimahaia, 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusia 89ren aurrean burututako araudian oinarritu da. Erizpide hauek, aipaturiko Txapelketaren liburuan argitaratuak daude.

#### EPAI-MAHAIA

Markel Arizmendi  
Jesus Mari Etxezarreta  
Rufino Iraola  
Antton Kazabon  
Antonio Mendiluze  
Jexus Mari Mendizabal

#### IDAZKARIAK

Jose Mari Altuna  
Arantxa Arruti

#### GAI-JARTZAILEAK

Laxaro Azkune  
Jose Kruz Ezeiza  
Meltxor Legorburu  
Juan Jose Mitxelena  
Manuel Olano  
Maria Axun Oteiza  
Martxeli Sagastume  
Xabino San Sebastian  
Pello Urretabizkaia  
Inaxio Usaralde  
Nikolas Zeberio

#### AURKEZLEAK

Laxaro Azkune (Azkoitia, Oñati, Donostia)  
Jose Kruz Ezeiza (Oiartzun)  
Maria Axun Oteiza (Antzuola, Eibar)  
Martxeli Sagastume (Aretxabaleta, Tolosa, Donostia)  
Xabino San Sebastian (Deba)  
Pello Urretabizkaia (Beasain)  
Inaxio Usaralde (Usurbil, Hondarribia)


#### DOINU ERREGISTROA

Joanito Dorronsoro

#### ANTOLAKUNTZAREN ARDURADUNA

Bertsolari Elkarte-Gipuzkoa





*Joanito Dorronsoro, doinuen azterketa egilea, Antonio Mendiluze, Jesus Mari Etxezarreta, Markel Arizmendi, Rufino Iraola, Antton Kazabon eta Jesus Mari Mendizabal, epaimahaikideak, eta Arantza Arruti -bizkarra emanaz- eta Joxe Mari Altuna idazkariak..*

## PARTEHARTZAILE ZERRENDA

Berrogeita hamalau (54) bertsolari izan ziren izena emanda-koak. Hona hemen zerrenda:

- 1.- Agirre Bittor
- 2.- Aizpurua Carlos
- 3.- Aizpurua Felix
- 4.- Arrieta Agustin "Ibergun"
- 5.- Arrizabalaga Javier "Ziarda"
- 6.- Azpillaga Bernardo
- 7.- Begiristan Inaxio
- 8.- Egaña Andoni
- 9.- Eizmendi Juan Joxe "Loidisaletxe II"
- 10.- Eizmendi Jon
- 11.- Elorza Joxerramon
- 12.- Etxabe Xabier "Armendia"
- 13.- Etxezarreta Pedro
- 14.- Etxebeste Aitor
- 15.- Gesalaga Jose Antonio "Xaldubi"
- 16.- Gerricko Juan Ramon
- 17.- Igarzabal Euxebio
- 18.- Iribar Jexux "Olalde"
- 19.- Izagirre Xanti "Attola-Berri"
- 20.- Izeta Joxemari
- 21.- Izeta Nikolas
- 22.- Jauregi Jesus Mari "Altzo-Txiki"
- 23.- Kortaberria Jexux "Kaxeta"
- 24.- Lasarte Euxebio
- 25.- Lertxundi Joxemari
- 26.- Lizaso Sebastian
- 27.- Loidi Arantzazu
- 28.- Loiola Juan
- 29.- Lopetegi Jexux
- 30.- Lopez Joan Mari
- 31.- Maia Jon
- 32.- Mendizabal Mikel
- 33.- Munduate Joxe

- 34.- Murua Iñaki
- 35.- Narbaiza Juan Mari
- 36.- Narbarte Xabier
- 37.- Olaizola Manuel "Uztapide II"
- 38.- Otamendi Luis
- 39.- Peñagarikano Angel Mari
- 40.- Perez Xabier "Euskitze"
- 41.- Rezabal Martin "Olaso"
- 42.- Salegi Jose Angel "Lizarreta"
- 43.- Sarasua Jon
- 44.- Sarasua Aitor
- 45.- Sasiain Jose Antonio
- 46.- Sorozabal Jokin
- 47.- Telleria Millan
- 48.- Urdangarin Jose Luis
- 49.- Usarraga Juanjo
- 50.- Zabala Xanti "Lexo"
- 51.- Zeberio Xabier
- 52.- Zelaia Iñaki
- 53.- Zelaia Koldo
- 54.- Zendoia Nikolas

#### SAIOAK FASEZ FASE

### **Kanporaketak**

Urriaren 25ean ANTZUOLAn "A" taldea

**Elorza**, "**Olalde**", Narbarte, "Ibergun", "Lexo", Gerriko, **Sasiain**,  
F. Aizpurua, Begiristain, K. Zelaia

Urriaren 27an DEBAn "B" taldea

**Igarzabal**, A. Sarasua, B. Agirre, Loiola, **B. Azpillaga**, "**Uztapide II**", Usarraga, C. Aizpurua.

Urriaren 31 USURBILen "D" taldea

**X. Zeberio, Narbaiza, N. Izeta, "Xaldubi", "Altzo Txiki", E. Lasarte, Etxabe, Urdaingarín.**

Azaroaren 1ean ARETXABALETAn "E" taldea

J. M. Izeta, **Peñagarikano**, "Attola Berri", Arantzazu Loidi, "Lizarreta", Etxebeste, "Ziarda", **Munduate**.

Azaroaren 3an HONDARRIBIAN "F" taldea

Lopetegi, "Kaxeta", "**Olaso**", **Etxezarreta**, I. Zelaia, Lopez, **Maia**, J. Eizmendi.

Letra beltzagoz agertzen dira bere saioan lortutako postuari esker hurrengo faserako sailkatuak. Hauei honoko hauek gehitu zaizkie puntuaketaren arabera: J. M. Izeta, "Ziarda", B. Agirre, A. Sarasua eta Lopez.

### **Azken laurdenak**

Azaroaren 15ean BESAINen "A" taldea

**Egaña**, Etxezarreta, Igarzabal, "Lizarreta", Otamendi, **Peñagarikano**, A. Sarasua, **J. Sarasua**.

Azaroaren 17an AZKOITIAN "B" taldea

**"Euskitz"**, Lertxundi, Lopez, Maia, **Murua**, "**Olaso**", Sasiain, Urdangarín.

Azaroaren 22an OIARTZUNen "D" taldea

B. Azpillaga, Elorza, **Mendizabal**, Munduate, "**Olalde**", **Sorozabal**, Zendoia eta "Ziarda".

Azaroaren 24ean EIBARren "E" taldea

B. Agirre, J. M. Izeta, **S. Lizaso**, "Loidisaletxe II", Narbaiza, **Tellería**, "Uztapide II", **Zeberio**.

Letra beltzagoz bere taldean lortutako postuari esker hurrengo faserako sailkatuak. Hauek gehitu zaizkie puntuaketaren arabera: Jon Maia, Zeberio, Sasiain eta Lertxundi.

## **Azken aurrekoak**

Abenduaren 6an TOLOSAn "A" taldea

**Egaña**, Lertxundi, Mendizabal, **Murua**, "Olaso", **Peñagarikano**, Sorozabal, Telleria.

Abenduaren 8an OÑATIn "B" taldea

**"Euskitze"**, **S. Lizaso**, "Loidisaletxe II", Maia, "Olalde", **J. Sarasua**, Sasiain, Zeberio.

Letra beltzagoz bere taldean lortutako postuari esker sailkatutakoak. Hauek gehitu zaizkie puntuaketaren arabera: Mendizabal eta "Olaso".

## **Finala**

Abenduaren 22an DONOSTIAN

Egaña, "Euskitze", S. Lizaso, Mendizabal, Murua, "Olaso", Peñagarikano eta J. Sarasua.

*Txapelduna:*

ANGEL MARI PEÑAGARIKANO



# **FINALERDIAK**

**Tolosa**

1991-XII-6



*Beotibar leporaino betetzen. Gazte, haur, heldu, denetik... Giro ezin hobe.*



Tolosan, Abenduaren seiean, ospatu zen finalerdietako lehen saioa. Jendez gainezka zegoen Beotibar pilotalekua eta sarrerak ere bukatu egin ziren. Martxeli Sagastume aritu zen aurkezle eta gai-jartzaile lanetan; Gipuzkoako bertsolari txapelketa azken txanpan sartua zela ohartarazi eta entzuleak agurtu ondoren, bertsolariek egin beharreko lana azaltzeari ekin zion. Zortziko nagusian, ofiziotan, ordurarteko saioetan baino bertso bat gehiago, hau da, lau bertso, kantatu beharko zutela azpimarratu ondoren, epaimahaikideak aurkeztu eta bertsolariak deitu zituen saioari hasera eman asmoz. Hauexek izan genituen Tolosako saioan parte hartu zuten bertsolariak batetik zortzira hurrenez hurren: **Iñaki Murua, Andoni Egaña, Mikel Mendizabai, Martín Rezabal "Olaso", Angel Mari Peñagarikano, Joxe Mari Lertxundi, Millan Telleria, Jokin Sorozabal.**

## AGURRAK

*Doinua: Ai gure antzinako*  
*Neurria: 10eko Txakia*

*Murua*                    Egunon, hemen dator  
gure eginahala, (bis)  
oroit egunkariak  
urte bat duala,  
"San Konstituzio" ere  
gaurkoz omen dala  
ta gu bertsolariak  
epaitzen gerala,  
horra gure tribunal  
konstituzionala. (bis)

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Egaña*                    Gaur egun ona izan det baina  
motibaturik ez nago,  
bertsolaritzak egon behar du  
norbera baino lehenago,  
zuengatikan trantze estu hau  
pozik nola ez igaro.  
Komila arteko frase hoiekin  
nere partetik akabo:  
"Ni Egaña naiz, txartela nahi det,  
beste egirik ez dago." (bis)

*Doinua: Itziarren semea*  
*Neurria: 12ko Txikia*

*Mendizabal*        Tolosan bildu gera  
lehia bat tarteko,  
Beotibar frontoia  
hornitu da bapo,  
mila beatzirehun eta  
laroitamaikako  
Abenduaren seia,  
horra zenbait dato,  
ondo edo txarto  
idatzi beharko  
kapitulu berri bat  
gure historirako.

*Doinua: Oilaskoi esker eginak ditut*  
*Neurria: 8ko Haundia*

*Olaso*                    Oilaskoi esker eginak ditut  
lehenagoko bi jira ta  
puntu mordo bat eskuratze nun  
begi kinu bat tirata,  
gure etxeokak bukatu dira  
gaur egon naiz begira ta,  
bainan jarraitu puntuk ematen  
arkumek jaio dira ta.

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Peñagarikano* Egunkarian irakurri det  
saioa zela Leidorren,  
kazetariak ez al zekiten  
genula Beotibarren?  
Hala ta guztiz nik ikusten det  
gaur zenbait jende datorren.  
O entzulea, borondatea  
eskatzen dizut nik arren:  
Txalo gogotik jo dezazula  
guk gaizki kantatu arren. (bis)

*Doinua: Pello Josepe tabernakela*  
*Neurria: 8ko Haundia*

Inguru dana tranpaz beteta  
daukat zepo eta amu,  
ni harrapatzeko zai hortxe daukat  
zazpi etsai edo mamu,  
burrugarako prestatu nadin  
gero izan gabe damu,  
nahiago nuke danak hausteko  
hainbeste egingo banu.

*Doinua: Ez dakit Txapelketa*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Telleria* Zer da Beotibarren  
gaur ospatzen dena?  
Jendez gainezkaturik  
ikusten det dena,  
Mozarrek atzo zuen  
ba urteurrena  
eta Egunkariak  
gaur bere lehena,  
hark eta guk helburu  
degu itxaropena. (bis)

*Doinua: Antton eta Maria*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Sorozabal* Txapelketak hartzean  
hain buelo zabala  
urduri egotea  
ez al da normala?  
Kazetari pila're  
ez degu makala!  
Ez badegu asmatzen  
zuek nahi bezala,  
jarri egun txar baten  
kulpa izan dala. (bis)

## **ZORTZIKO HAUNDIAN LAUNA BERTSO**

### **Iñaki Murua - Andoni Egaña**

*GAI A:* Zuek amona eta iloba zarete. Iñaki Murua amona eta Andoni Egaña iloba. Egaña ikigandero mezatarala laguntzen dio Murua amonari; iloba ordea ez da elizan sartzen, kanpoan itxoitzen dio.

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Murua* Gure ilobak amona zaintzen  
jarri izan du arreta,  
eleizaraino iritsi zaigu  
ta hemen hainbat berriketa.  
Barrura ordeztate ondoan  
gelditu zera, zer gertatu.  
Zatoz barrura, teilaturikan  
ez da eroriko eta. (bis)

*Egaña* Ez naiz tuntuna, ez naiz txolina  
ez naiz batere kaikua,  
buelta jakina izaten degu  
igande edo jaikua,  
alper-alperrik aipatu ditu  
teilatu eta goikua.  
Elizaraino laguntzen dizut  
hori ez al da nahikua? (bis)



*Iñaki Murua, kantari, eta Andoni Egaña. Arzean, eserita, Martxeli Sagastume.*

- Murua*                    Elizaraino lagundu eta  
horrenbestez errenditu  
eta zergatik ate ondoan  
barrura gabe gelditu?  
Bada lekua, bi gehiongatik  
errez gaitzke kabitu,  
konseju onak emate'ituzte  
bete nahiko bazenitu. (bis)
- Egaña*                    Giro horretan sartuko banintz  
neronentzako kaltea,  
itsu aurreko gisa nabil ni,  
amona, hara atea,  
bi eskailera maila daude hor  
ta han daukazu ponteak,  
biloba askok ez du izaten  
holako borondatea. (bis)
- Murua*                    Borondatea badaukazula  
ni ados nago horretan,  
zuk badakizu amonak gisan  
hala ere zer nahi detan:  
Sartu barrura, damutu zaitez  
zure ekintza txarretan  
edo betiko erreko zera  
zu inperuko garretan. (bis)
- Egaña*                    Erlijioa eta beldurra  
bata bestean kidea,  
gure amonak botia digu  
zahar jendearen idea,  
ahal baldin balitz ez det segi nahi  
erlijioan bidea,  
zure pausoa egin zazu zuk  
nik egingo det nirea. (bis)

*Murua* Beraz ez dezu inola egin nahi  
nere ondoan otoitzik,  
ate ondolik barrura gabe  
bildur ta izu zaude kasik,  
entzun apaizek esandakoa  
zuk ahaztu gabe hitzik,  
hoiek egina ez zazu egin,  
horiek esana baizik. (bis)

*Egaña* Erljioan beharrik ez det  
sentitu izan gaur arte,  
ordu betean egongo gera  
elkarrengandik aparte.  
Zoaz barrura, tori muxu bat,  
ario amona maite,  
taberna joanda hartu behar det  
tazaka bat txokolate. (bis)

MURUA: 23 - 26 - 27 - 28 - 27,5 - 29 = 160,5  
EGAÑA: 26 - 26,5 - 28 - 29 - 27,5 - 29,5 = 166,5

## **Mikel Mendizabal - Martin Rezabal "Olaso"**

*GAI:* Zuek ama-semeak zarete, Mikel ama eta Olaso semea. Zuk, Mendizabal, semetxo hau besterik ez duzu eta gehiago ekartzeko asmonik ere ez. Gaur zure seme honek, Olasok, beste anai bat eskatu dizu.

*Doinua:* *Balentin Berriotxoarena*

*Mendizabal* Seme koxkorak gaur bete ditu  
kasi-kasi hiru urte,  
bera bakarrik aburrituta  
aurkitutzen da nunbaite,  
beste anai bat nahi duela ta  
galdezka dator fuerte.  
Momentuz aski zera zerorri  
bakarrik konformazaita. (bis)

*Olaso*                    Etxe bakoitzen dozena bat haur  
izaten ziran ant zinan,  
ni bakarrikan nago sukalden  
da berdin gela eskinan,  
batekin alto egin zenduen  
zuk kukuaren tamainan,  
sasoia zendun arte zergatik  
horrela gelditu zinan? (bis)

*Mendizabal*            Aizu, semetxo, harrokerian  
ez zaitez gaur igo gora,  
guk badakigu nola gabiltzan  
badakigu joan nora.  
Gauzak normalki hemen hartzea  
askoz hobe izango da,  
komeni bada horretarako  
bada oraindik denbora. (bis)

*Olaso*                    Garai batetik sendi guztitan  
etorri dan aldakuntza,  
orain batetan hari erakutsi  
eskola eta hizkuntza,  
lehen koadrila jolaserako  
batek tira bestek bultza  
ta zahart zaron'e askok ematen  
dute askoren laguntza. (bis)

*Mendizabal*            Seme bakarra, aita amaren  
maitasuna hor daukazu,  
anai txiki bat ekartzeko're  
lehen jarri ginan gogotsu,  
zein gaizto eta bihurri zeran  
hemen ikusirikan zu,  
animo denak gure barruan  
uxatuak dizkiguzu. (bis)



*Olaso* Ni trastea ta gehio ez sartzeko,  
ez ilusio, ez gogo;  
ta atera ditu senarrarekin  
tranpazko hainbeste joko,  
bakarrarekin nahikua dula  
bestek "a tomar por saco",  
martxa honetan iloba askorik  
zuk'e ez dezu jasoko. (bis)

*Mendizabal* Gure etxeko egoera hau  
azaldu nahi det lehenengo,  
diru aldetik ta lan aldetik  
ez gera aurkitzen sendo,  
bizimodua haur askorentzat  
egokia ez da izango,  
asko ta gaizki baina hobe da  
bakarra ta hura ondo. (bis)

*Olaso* Ta itxura danez nere amatxo  
konturatua da garai z,  
kontseju eske paseak ditu  
hainbat mediku ta apaiz,  
dirua ondo gure etxean  
kontari jarduna zat maiz,  
nahikoa bada bakar bakarrik  
bapo manejatuko naiz. (bis)

OLASO: 22,5 - 26 - 26 - 24,5 - 27 - 28 = 154  
MENDIZABAL: 24 - 25 - 27,5 - 26 - 27,5 - 29 = 159

## Angel Mari Peñagarikano - Joxe Mari Lertxundi

*GAA:* Zu, Lertxundi, neska zara eta zu, Peña, mutila. Zu, Lertxundi, filme ospetsu bateko protagonista zara. Badira hilabete batzuk herriak kanpo zabiltzala mutil ospetsuen artean. Gaur ilunabarrean herriko mutil-lagunak, Peñak, deitu dizu hotelera.

*Doinua: Arratsaldean lendabizitik*

*Peñagarikano*      Hemendik kanpo sarritan dabil  
ta pentsatzen det zeinekin,  
baina ez dakit ia lortu dun  
uste zun hainbat etekin.  
Proposamena egingo dizut  
zuri nahi dizut hitzegin:  
Nahi al zenduke gau on bat pasa  
herriko mutilarekin? (bis)

*Lertxundi*              Zine munduko lanteri hortan  
nola naguen hasita,  
munduko herri askotxotara  
nik egiten det bisita,  
mutil askotxo nere ondoan  
hain ederrak ikusita,  
barkatu baina nola jungo naiz  
aukera eder hau utzita? (bis)

*Peñagarikano*      Ospetsuekin ibiliko du  
hainbat droga eta mozkor,  
bienbitarten menospreziatu  
horrenbeste ume koxkor.  
Alde batera utzi Armendariz,  
ta alde batera zuk "Refor",  
haiek bezin ona banaiz eta  
hargatik zugana nator. (bis)

*Lertxundi*

Hiri haundian arkitutzen naiz  
dana proiezoz betia,  
eta zaila da herri txikira,  
ene laguna, juatia,  
esaten dizut, oraindik ere  
bihotzez zaitut maitia,  
ni ikusteko gogoz bazaude  
nigana etorri zaitia. (bis)

*Peñagarikano*

Barkatu bainan zuk oraingoan  
ondo ez didazu hitzegin,  
nere ustetan proposamen a  
nik zuri egin dizut fin,  
neskazahar askok mutil jatorrei  
sarri egin die muzin,  
oinezkorikan ez dute nahi ta  
zaldizkorik topa ezin. (bis)

*Lertxundi*

Mutil tartean hementxe nabil  
etengabe jai ta aste,  
aukerakuak oso ederrak  
badaduzkat hainbat gazte,  
zu're tristerik egoterikan  
nola nik ez detan uste,  
atoz nigana ta oraindik badet,  
mutil, zureztat hainbeste. (bis)

*Peñagarikano*

Fama ta ospea beste gauzarik  
honek ez dauka kaskuan,  
hainbeste filme ta pelikula  
dirua dago jokuan.  
Gaua dotore pasa gentzake  
nik esandako lekuan,  
gero nigana ez zaite etorri  
titik zimurtutakuan. (bis)

*Lertxundi* Diru puxka bat egitearren  
nago hontara irtena  
eta mutila ez zaitez izan  
zu hortaraino kirtena,  
kanpon naizela ta hartzen badezu  
zuk orain holako pena,  
zu lasai egon, gordeko dizut  
detan gauzik politena. (bis)

PEÑAGARIKANO: 24,5 - 26,5 - 25,5 - 27,5 - 29 = 160,5

LERTXUNDI: 23,5 - 25,5 - 28 - 26 - 27,5 - 28 = 158,5

## **Millan Telleria - Jokin Sorozabal**

*GAI*: Zuek ama-semeak zarete. Telleria ama eta Sorozabal semea. Hamasei urteko zure semea, Sorozabal, etxean bakarrik zegoen eta zu etorri zarenean, Millan, ispiluaren aurrean bilatu duzu zure soinekoa jantzi-ta.

*Doinua: Adiskidea Andoaindikan*

*Telleria* Ez dakit ondo hizketan hasi  
edo ta nik egin burla,  
nere etxean horrelakorik  
pasako al zan sekula?  
Nere semea ispilu aurrean  
mina ezin disimula,  
zure jazkera aldatu dezu  
baina lehengo matrikula.

*Sorozabal* Soineko zahar da itsusik daude  
zure armario zokoan,  
izugarri zko hankasartze bat  
hargatik det nik gaurkoan,  
soineko zahar hau jantzi det orain  
beste zerbait zalakoan,  
karnabaletan jantzi ohi dedan  
txilaba nuelakoan.

- Telleria*                    Hamazazpiko nere semeak  
haizea dauka nabarmen,  
baina hau ere asenta behar  
urteak joan ondoren,  
berak esan du jantzi duena  
bere txilaba ote zen,  
hau txantxo jazten hasia zaigu  
inauteriak baino lehen.
- Sorozabal*                    Zure soineko zaharra jaztean  
bada iskanbila pranko,  
hori gordeta al zeneukan ba  
osabaren bodarako?  
Neronek ere aukeratu det  
karnab al haue tarako,  
Tolosan dagon itsusiena  
eraman nahi nuelako.
- Telleria*                    Hori ez degu pormalena ta  
egin beharko errita,  
inauteriak ziral a uste  
berak digu errepika,  
berak nahi zula Tolosa aldeko  
itsusiena jarri ta  
aman soineko xahar horrekin zuk  
ematen dezu "marika".
- Sorozabal*                    Zeure ustetan mutilarentzat  
hau datorkigu aldrebes  
ta batez ere hain gaztea ta  
txikia izanda nerez,  
zu lasai egon eta hau jazten  
utzi zaidazu mesedez,  
zurea neri kabituko zait  
baina nere a zuri ez.

*Telleria*            Aizu, semea, ez nazazula  
nere onetik atera.  
Bererik ezin kabitu dala  
esaten ari da bera,  
nere soineko hori jantzita  
gaur ikusteko aukera.  
Jantzi galtzak ta zu juan zaite  
gonaduna bilatzera!

*Sorozabal*        Damutu egin behar zait hemen  
hori jantzita egona,  
zeren erritan hasiko zaizkit  
bai ama ta bai amona,  
gauza guztiak elkar banatzen  
ez al da modan dagona?  
Neskak galtzakin ibiltzen dira,  
ta guk zergatik ez gona?

TELLERIA : 23,5 - 23,5 - 26,5 - 24 - 27 - 27,5 = 152  
SOROZABAL: 23,5 - 24,5 - 26,5 - 26,5 - 27 - 28,5 = 156,5



*Millan Telleria eta Jokin Sorozabal.*

## BAKARKO LANA

- Bukaera emanda Zortziko Haundian bertsoa osatu
- Puntua emanda Zortziko Txikian bertsoa osatu

### Iñaki Murua

*Doinua: Goiztan goizk jeki ninduzun*

*Bukaera*                      Hitzegiteko prest gaude baina  
bururik makurtu gabe.

Tolosalde hau egina zaigu  
auzi gogor baten jabe,  
Autobidea dala ta ez dala  
politikoak hor daude,  
ta Lurraldeak hauxe esan du  
seguru bezain xuabe:  
Hitzegiteko prest gaude baina  
bururik makurtu gabe.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*                      Ferira etorrita  
atxurra erosi.

Holako lanbidean  
ni zergatik hasi?  
Baserritar konturik  
ez nuen ikasi,  
beraz maixu jarraitu  
hobeko det kasi.



## Andoni Egaña

*Doinua: Hara nun diran mendi maiteak*

*Bukaera*            Egunkariak hola bete du  
bere lehenengo urtea.

Sortu zenean gehientsuenok  
izan genuen partea,  
jaurlaritzatik ez zaio heldu  
diru laguntza fuertea,  
herri xumean babes a eta  
gainera krixton suertea,  
Egunkariak hola bete du  
bere lehenengo urtea.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Oilar gehiegi dago  
gaur kantari kotan.

Burukatu beharra  
daukagu askotan,  
nahiz ta lagun giroa  
eduki bertsotan,  
hemen guztiok gaude  
finalan asmotan.

## Mikel Mendizabal

*Doinua: Kintakjarrita ondorenean*

*Bukaera*

Gutxi batzuen eskutan dago  
gehiengoaren gero a.

Errusiatik etorri zaigu  
independentzi leloa,  
Nortamerikak hartu nahi luke  
bertantxe parte beroa,  
agintariak gutxi dira ta  
mundu dena bezeroa,  
gutxi batzuen eskutan dago  
gehiengoaren gero a.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*

Zuk ikusi al duzu  
sekula sorginik?

Bat ikusi dudala  
esan nahi nuke nik,  
neure aldamenean  
dagola jakinik,  
gaurko hontan Tolosan  
ez dut zereginik.

13- 12,5- 11,5- 14- 15,5- 14 = 80,5

## Martin Rezabal "Olaso"

*Doinua: Eguna pasa nekean eta*

*Bukaera*           Beti gehiago eskatzearren  
ezer gabe gelditu naiz.

Ni baserriko semetxo bat naiz,  
ez abogado ez apaiz,  
txapelketara joateko're  
izena eman nun garai z,  
maila hontara iritxitzetik  
ez nuen espero inoiz,  
beti gehiago eskatzearren  
ezer gabe gelditu naiz (bis).

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*           Emakumeak apai z  
egingo balira...

Hori egia balitz  
gaitzerdi sikira,  
eleiza ingo nuke  
majina bat jira  
eta handikan ni nork  
ordun erretira?

12,5 - 12,5 - 14 - 14,5 - 16 - 14 = 83,5

## Angel Mari Peñagarikano

*Doinua: Hara nun diran mendi maiteak*

*Bukaera*           Elkarren lagun izan daitezen  
izadia ta gizona.


Eskandaloa beti badegu  
hori ez da zoriona,  
Autobidea egitea ere  
izango da gauza ona,  
hizketa egin behar dutenak  
etor daitezela hona,  
elkarren lagun izan daitezen  
izadia ta gizona.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Igandez Tolosara  
amodio bila.

Zeinek ez du hartuko  
holako mutila?  
Ni nauzue martxoso  
edo marabila,  
inor gustatzen bada  
etorri dedila.

14 - 14,5 - 14,5 - 15,5 - 16,5 - 15,5 = 90,5



*Angel Mari Peñagarikano*

## Joxe Mari Lertxundi

*Doinua: Eguna pasa nekean eta*

*Bukaera*            Guk sasitegi bihurtu dugu  
pareg abeko baratza.

Hondamendira amildua da  
guk genduen esperantza,  
arrosa bila hasi ginan da  
bihurtu degu arantza,  
nolatan egiten ari geran  
hala hain inguru narratsa,  
guk sasitegi bihurtu degu  
pareg abeko baratza.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Gustokoa al duzu  
gaurko jai eguna?

Goiz goizetik hasi det  
goxo ta leguna,  
dana adiskidea  
ta dana laguna,  
gerora ere sarritan  
oroituko deguna.

12,5- 12,5- 13,5- 14- 15- 14,5 = 82

## Millan Telleria

*Doinua: Adiskidea Andoaindikan*

*Bukaera*            Milaka lerro idatzi arren  
hitz guztiak sobran daude.

Hainbeste lagun kartzeletan da  
hainbat erbestera alde,  
herriagatik senti deguna  
barruan ezin da gorde,  
hainbeste hitz ta hainbat pankarta  
kaleetatik mirabe,  
milaka lerro idatzi arren  
hitz guztiak sobre daude.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Tolosako sarreran  
perfume usaia.

Nik ere luzitzeko  
banuen garaia,  
horretarako nago  
ni pertxa ermaia  
eta pasa behar det  
guapoenan raia.

10,5- 12- 11,5- 12- 13,5- 13,5 = 73

## Jokin Sorozabal

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza*

*Bukaera*            Batzuk izena izaten dute  
eta besteek izana.

Txapelketako parte hartzean  
denok izan degu plana,  
batzuk aurrera juango dira  
hori suertea daukana,  
beste batzuen etorkizuna  
bazter batean etzana,  
batzuk izena izaten dute  
beste batzuek izana. (bis)

*Doinua: Xarmangaria zera*

*Puntua*            Fernando amezketarra  
entzuten balego,

amorrzita zegon  
hemen onezkero,  
ezer ez asmatzeko  
hainbeste endredo,  
bertsolarik gerala  
esaten da gero.

12-12-14-14- 14,5- 13,5 = 80



## HAMARREKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO

### Andoni Egaña - Mikel Mendizabal

*GAI:* Zuek biok neska-lagunak zarete. Egañak hiru senargai edo nobio izan ditu eta hirurak Mendizabalek kendu dizkio. Orain laugarrenarekin hastekotan dago Egaña, baina aurretik Mendizabalekin hitzegitea erabaki du.

*Doinua: Antton eta Maria*

*Egaña*                      Nexkatarako badet  
prakak bete kemen  
baina joaten zaizkit  
eskura ondoren,  
ez naiz halako txatxu  
tonto edo zeken,  
gauza bat jakin behar  
nikek aizak hemen:  
Ia hori're gero  
kenduko didaken. (bis)

*Mendizabal*            Ezetz esango dizut  
gaurkoan sikira,  
honetan bukatzen da  
lehengo kalejira,  
bainan juan zaitezte  
pixkat urrutira,  
ni ikusi orduko  
jartzean begira,  
neregana beraiek  
etortzen bait dira. (bis)

*Egaña*

Oilar honen aurrean  
beharko umildu,  
harreman sakonikan  
ezin borobildu,  
nere ilusioa  
sari honek hil du,  
behiak nik hazten ditut  
eta berak bildu.  
Kilometro batera  
ez hadi hurbildu. (bis)

*Mendizabal*

Bete izan dut sari  
nere kapritxua,  
oraingoz izango naiz  
motiko txintxua,  
zuk kanpoti daukazu  
hain planta goxua  
baina nik kendu diot  
horri probetxua,  
zuk itxura daukazu  
eta nik gantxua. (bis)

*Egaña*

Zer eginikan ez det  
izango orduan,  
lehengo hiru haiena  
dabilkit goguan,  
mutil sexiagorik  
ez dago munduan,  
nahiz bakeroak jantzi  
artisten moduan,  
gantxo kontua zala  
sumatutzen nuan. (bis)

*Mendizabal* Ez gera izan noski  
biok aurkakoak  
bainan garbi ditzagun  
dauzkagun jokoak,  
lehen kendu badizkizut  
zure gustokoak,  
orain atsegin beza  
zuk dezun lepoak,  
ta kontako dizkizut  
nere sekretoak. (bis)

EGAÑA:  $22,5 - 21 - 22 - 22,5 - 22 - 23,5 = 133,5$

MENDIZABAL:  $19 - 19 - 20 - 21,5 - 21 - 22 = 122,5$

## **Martin Rezabal "Olaso" - Iñaki Murua**

*GAIÀ:* Zuek biok armario berean elkartu zarete. Zu, Munua, ezkontzako soineko zuria eta zu, Olaso, sukaldeko mantala.

*Doinua:* *Ai gure antzinako*

*Olaso* Armaion gordeleku  
bat degu zuzena, (bis)  
honek nahiz ta eduki  
politán izena,  
lehen flako zala egina  
orain ni gizena,  
jasota edukitzeko  
honen almazena,  
zaharrak dauka oraindik'e  
zerbizu gehiena. (bis)

*Murua* Pareak egotea  
da gure baldintza (bis)  
ta astintzen danean  
armarioko giltza,  
egunero jo ta su  
lanean zabilta,  
egun bakar batean  
ein nun nik ekintza  
ta gero deskantsuan  
daramat bitizta. (bis)

*Olaso* Hemen elkartu gera  
betiko fabrikan, (bis)  
etxeoandreak beti  
nabilki aztarrikan  
ta zu egun guztian  
bakar bak arrikan,  
ni haruntza ta honuntza  
berakin korrikan,  
galanki ordaindu zinun  
alper alperrikan. (bis)

*Murua* Zerbaiteg atik ordain  
ninduten hainbeste, (bis)  
zu hobeto zaudenik  
ez zazula uste,  
ajatuxea zaude  
lanez horrenbeste,  
erdian zulatua  
eta oso triste,  
aurki zakarrontzira  
botako zaituzte. (bis)

*Olaso* Honen egoera hau  
juzkatzen det grabe, (bis)  
ni etxeo andreakin  
jo goi eta jo behe,  
garbituz fregadera  
eta hainbat labe,  
hau armaiora joanda  
daukagu mirabe.  
Ez zera mudatuko  
horrela bazaude. (bis)

*Murua*                    Armaian egin det  
deskansua pranko, (bis)  
zuk diozun bezela  
mugitu beharko,  
itxaropena badet  
nik horretarako,  
lehen amatxo laztanak  
hartua ontzako  
ta laister balio det  
alabarentzako. (bis)

OLASO: 18,5-19-19-19,5-20-22 = 118  
MURUA: 21,5-21,5-21-22-22,5-22,5= 131

## **Joxe Mari Lertxundi - Millan Telleria**

*GAA:* Zu, Lertxundi, ezkondua zaitugu baina ez duzu haurrik. Apaiz gazte honekin, Telleriarekin, topo egin duzu eta disimulo gutxirekin hala esan dizu: "Euskal Herria haur eskasiak hondatuko du".


*Doinua:* Ai gure antzinako

*Lertxundi*                Ezkonduta badauzkat  
makina't nahigabe, (bis)  
haurrik ez bait da sortu  
sendiko zutabe.  
Apaiza topo eginda  
lotsarika gabe,  
esan dit ez naizela  
haurtxo baten jabe.  
Bataio kobratzeko  
zai jarrita zaude. (bis)

*Telleria*            Apaiz gaztea dago  
kezkatu xamarrik, (bis)  
zeru hodeitsu hontan  
ez bait da izarrik.  
Ez al dezu balio?  
Ez al da indarrik?  
Hemen ez degu behar  
holako senarrik,  
akabo da herri hau  
ez badator haurrik. (bis)

*Lertxundi*            Erantzuna emango'izut  
zuzen zu zenian: (bis)  
Oraindikan nago ni  
sasoi onenian,  
emaztea ere ondo  
det aldamenian,  
gozatu nahi badezu  
jan da edanian,  
deituko dizut haurra  
etortzen danian. (bis)

*Telleria*            Beraz niri deitzeko  
badauka nahiko plan, (bis)  
baina ez dakit inoiz  
hotsegingo didan,  
lehenbizi haurra ekartzen  
badauka nahiko lan,  
baina tontoa dala  
diogu antzeman,  
erakutsi behar diot  
nola egiten dan. (bis)



*Joxe Mari Lertxundi*

*Lertxundi* Laguntza eskatu det  
santa ta santura, (bis)  
orain pozikan nator  
honuntza kantura,  
honek aprobetxa nahi  
gure abentura  
baina begira zazu  
oaingo talentura,  
ez dezu ezer jango  
Lertxundin kontura. (bis)

*Telleria* Hortan saiatu dala  
hau buru belarri, (bis)  
santuei errugutu  
ta kandela jarri,  
baina oraindik ez da  
hautxoaren berri  
eta horretarako  
martxa det igarri:  
Goiz meza aurretikan  
andrea ekarri. (bis)

LERTXUNDI: 18 - 18,5 - 19 - 20,5 - 20 - 20,5 = 116,5  
TELLERIA: 20,5 - 20 - 19,5 - 20 - 21 - 22 = 123



## Jokin Sorozabal - Angel Mari Peñagarikano

*GAI:* Zu, Peña, rock talde bateko partaidea zara eta zu, Sorozabal, honen aitona. Zui, Peña, ez dizute kalean ensaiatzeko lekuik uzten eta Sorozabal zure aitona baserriko ikuilua eskatu diozu ensaioak egiteko.

*Doinua: Antton eta Maria*

*Sorozabal* Errespeto handian  
didazu hitzegin,  
saiatzen naiz izaten  
zuretzat atsegin,  
kaleko bajeetan  
ensaiatu ezin,  
ikuiluan sar zaitez  
zure lagunekin,  
aurena ensaiatu  
gero lanak egin. (bis)

*Peñagarikano* Erantzungo al dezu  
zuk nere galdera?  
Baserrian hor daude  
gurdi eta lega,  
ikuiluan zintzilik  
hor atxur da sega,  
hori utzi zaidazu  
aitona, "kolega",  
hau baino leku hoberik  
inun ba ote da? (bis)

*Sorozabal* Leku txarra da baina  
zuretzat ederra,  
ez nekien zinanik  
hain buru okerra,  
eman beharko didazu  
ondoren eskerra,  
lanean jardun gero  
ez izan alperra,  
hola kobratzen det nik  
nere alkilerra. (bis)

*Peñagarikano* "Titi", ez dadukazu  
burua galdua,  
ez eta ere kandela  
bat'e itzaldua,  
kontutan hartu zazu  
iloben gradua,  
ikuilua zuk utzi  
aiton onratua,  
ta gustatuko zaizu  
gure ganadua. (bis)

*Sorozabal* Ganadu ona dago  
mardul eta gazte  
baina lana eskeinuta  
ihesean laste.  
Zertan bildu dituzu  
horrenbeste traste?  
Ikuilurako bada  
hamaika kontraste,  
orain sardearekin  
ensaia zaitezte. (bis)

*Peñagarikano* Ikuilura nator ni  
ikasteko planez,  
aitona hemen dabil  
ardoa ed anez  
eta orain iloba  
"oi ke guai!" esanez,  
ikuilua utziko dit  
aitortzen duanez,  
pagatuko dizut nik  
gero lan eginez. (bis)

SOROZABAL: 20 - 20 - 19,5 - 21 - 20 - 21,5 = 122  
PEÑAGARIKANO: 20 - 20 - 18,5 - 21 - 21,5 - 21 = 122

## KARTZELAKO LANA

- Hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

*GAI:* Zu, bizitza osoa domatzailerean latigoan eman duzun lehoia zara.  
Orain zahartu zarela edo, oihanera itzuli zaituzte.

### Iñaki Murua

*Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Bizitz osoa dantzatua det  
latigoaren kantuan,  
hainbeste urte pasa dira ta  
nengoen ia ohituan,  
esan bezela bizi osoa  
etsipenaren lantuan,  
ta oihanera bidali naute  
zahartu naizen momentuan,  
askatasuna behin izango ta  
heriotza hain gertuan. (bis)

Beti zigorra ta agindua  
nola aste hala jaian,  
zer janik ere ez det nik izan  
nahi nuen guztian mahaiian,  
ta orain berriz hementxe nabil  
bizitza luzatu nahian,  
oihan guztia neuretzat baina  
ez nago era alaian,  
ai, askatasun hau izan banu  
sasoia nuen garaian! (bis)

Latigoakin zigortua ni  
ia ezin egonik tente,  
neri begira ta nik eginaz  
gozatu da hainbat jente,  
aldegiteko burutapena  
sortu izan zait dezente  
ta horregatik hautsi nahi nuen  
hainbat erraja ta ate,  
orain libre naiz ta eze'ezin egin  
urteek domatu naute. (bis)

21 -2 1,5 -2 3 -2 1,5 -2 3 -2 2 = 132

## Andoni Egaña

*Doinua: Leiho ertzetik izan dezaket*

*Neurria: Berezia*

Zirko batean hainbat urtetan  
aritu nintzan lanian,  
hau esan eta hau egiteko  
moduan edo planian,  
gogoratzen naiz, ume txikiak  
jartzen nitun afanian,  
orain libre azkenian  
lagunen aldamenian. (bis)  
Askatasuna eman didate  
lan eginen omenian,  
eta kartzelan izan ninduten  
garairikan onenian. (bis)

Domadoreak esana egin  
lehoiaren erregela,  
tipoa zer zen, bihozgabea?  
Gogorra bezain ergela?  
Garai hartako oroitzapenek  
ez naute asetzen bela,  
oraintxe nago horrela,  
hauxe da suerte itzela! (bis)  
Libre ta aske oihan batean  
animaliak bezela,  
pena bat daukat: mundu honetan  
gizonen menpe gaudela. (bis)

Orain errea gertatuko zait  
arnas garbi hartzia,  
oihan hontako xulo guztitan  
nahi dedan eran sartzia,  
gizonezkoen esklabutza hura  
ez daukat guztiz ahanzia,  
askatasunan antsia,  
hona nere irrintzia. (bis)  
Gauza bakarra eskatu nahi det,  
badu bere garrantzia:  
duintasunez bizi ez zana  
duintasunez hiltzia. (bis)

25- 23 -22,5 -22,5 - 24 -22,5 = 139,5

## Mikel Mendizabal

*Doinua: Udaletxean badut*  
*Neurria: 14ko Txikia*

Lehoi baten papera  
daukat barrenean,  
eta hitzegin nahi dut  
nik onez-onean,  
hainbat urte paseak  
zirkoan lanean,  
latigo gogor hori  
zala aldamenean,  
ordun aurkitzen nintzan  
ni osasunean  
ta orain oihanera  
noa azkenan. (bis)  
Leku hau behar nuen  
gazte nintzenean.

Besteren esanean  
ni beti, jakina,  
proba dut zigorraren  
latigo gordina,  
jendeari eman ez  
poz ta atsegina.  
Neronen sorlekura  
itzuli naiz baina  
barruan sentitzen det  
pena eta mina, (bis)  
hain oihan eder hontaz  
gozatu ezina.

Beti ibili nintzan  
leku honen bila  
bainan kaiola hartan  
ai zer iskanbila!  
Orain abitu naiz ta  
barruan nahaspila,  
bizitzaren ezinak  
duen maratila,  
azkenik egingo dut  
eskari umila: (bis)  
amestu nun lekuan  
bukatu nadila.

## Martin Rezabal "Olaso"

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Txikitatikan izandu nuen  
libertadean aukera,  
egun batean itzuli nintzan  
etsai gaiztoen menpera,  
latigoa hartu, haruntz eta honuntz  
agintzen zuen lanera,  
oraintxe gora agintzen zuen  
eta hurrengo an behera,  
urte tristeak pasatu arren  
ostera nator lehenera. (bis)

Nahiz haien mende bizkarra eduki  
ile motxa edo gizen,  
jendean aurrean jarri zizkat en  
nik ahal dakit zenbat izen!  
Eta esana latiropean  
gainera egin behar zuzen,  
eta pentsatu alaitasunak  
nigana nola datozen,  
gaur hartu dedan libertadeaz  
ia gaztetutzen naizen. (bis)

Hainbeste urte pasatu ditut  
latigoaren bildurrak,  
legoi zaharrantzat egoera hai ek  
ez ziran oso samurrak,  
eta handikan nahiz ta hornitu  
okelaz nere hezurak,  
domadoriai egina dizkat  
behin betirako agurrak,  
aber nik libre gozatze'itudan  
gelditzen diran apurrak. (bis)

19,5 - 20,5 - 21,5 - 20,5 - 22,5 - 22 = 126,5



*Mikel Mendizabal eta Martin Rezabal "Olaso" solasean.*



## Angel Mari Peñagarikano

*Doinua: Munduan libre bizi izatea*  
*Neurria: Berezia*

Munduan libre bizi izatea  
nuen nik amets bakarra  
bainan ikusi behar izan ditut  
latigoak barra-barra,  
nola demontre onartu leike  
horren joera zabarra,  
lehenago nuen negarra,  
malkoz itzali txingarra,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
ez al nuen zoritxarra?  
Mundura lehoi sortzeagatik  
sufritzen bizi beharra. (bis)

Umea nintzan garai haietan  
ez nuen asko pentsatzen,  
hola ibili behar zutenik  
hainbat latigo dantzatzen.  
Zirkoan jardun naiz luzaroan,  
ez zait batere gustatzen,  
penak ai dira gustatzen,  
askatasuna dastatzen,  
noizbait behar da, hasiak daude  
animaliak askatzen,  
ni oihanean libre izatea  
ez dut besterik eskatzen. (bis)

Egun batean, etorri nintzen  
urrutiko oihanetik  
ta ezin nuen inolaz alde  
latigo txar hoietatik.  
Erabilia ni izan naiz hor  
bat aberasteagatik,  
libre nago kaiolatik  
eta badakit zergatik,  
bizia ere emango nuke  
nik gauza bakarragatik:  
Nerekin baten zeuden guztiak  
hemen izateagatik. (bis)

## Joxe Mari Lertxundi

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10 eko Haundia*

Legoia nola danentzako dan  
animali berezia,  
domadorean kaiola hortan  
naute sartu arazia,  
nola gauza asko neuzkan zirku an  
nerez ezin ikasia,  
kostila gaina utzi didate  
latibo zaharrez josia,  
beste errurik ez duan batek  
hau al zuen merezia? (bis)

Nola horixen izaten duten  
domadoreen langintza,  
ni zigortutzen etenik gabe  
eruki gabe dabilta,  
ta derrigorrez nik hartu behar  
hoixen da nere baldintza,  
suprimetutan nik daramakit  
zirku hontako bizitza,  
pozik aldegin nezake hemendik  
behin libratuko banintza. (bis)

Nola zahardade hori daukat en  
neregandik erosoan,  
aspertu dira domatzaileak  
latiboen arazoan,  
orain artean ez naiz izana  
oso bizitza gozoan,  
baina aurreantzean askatasuna  
nik izango det basoan,  
ia pozikan bukatzen detan  
neronen paradisoan. (bis)

## Millan Telleria

*Doinua: Maitasuna da bizi izateko*  
*Neurria: Berezia*

Gizarte hontan badago noski  
horrenbeste majadero,  
abereekin gizaki hori  
zergatikan da hain ero?  
Gaztaro dana igaro a dut  
kaiola baten bezero,  
latigoa egunero  
ta bizkarra bero-bero, (bis)  
azken aldian askatu naute  
nahiz ta ez nuen espero,  
baso hontara askatu naute  
bainan zahartu eta gero. (bis)

Sasoi nuela jasan izan det  
horrenbeste burni tarte,  
nahiz txiki nintzan, sartu ninduten  
kaiolarik ez nun maite  
eta gizonak ni zigortzeko  
bazun hainbat borondate,  
animaliaren kalte  
latigoa estandarte. (bis)  
Azken urteak bederen behintzat  
askatasuna dak arte,  
hobea nuen nik libre bizi  
gazte izan nintzan arte. (bis)

Gizonarentzat nunbait banuen  
egundoko garrantzia,  
domadoreek zigorra franko  
bazidaten erantsia,  
neure trixtura izango al da  
besteen erakutsia...  
Zahartuta nago, etsia,  
gogor dadukat antsia. (bis)  
Lehoia naiz ni bainan gainez dut  
ia malkoen ontzia,  
zahartuta nago ta alperrik dut  
orain nik baso guzia. (bis)

## Jokin Sorozabal

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Gizakietan ikusten degu  
gaur egun hainbat jenero,  
batzuek gure alde borrokan  
aritzen zaizkigu bero,  
besteetatik berri z ezin da  
gauza haundirik espero,  
oihan beltzera bialdu naute  
ta berandu onezkero,  
zertarako det askatasuna  
bizitza galdu ta gero? (bis)

Gaurko gazteak izadiaren  
alde jarriak badaude,  
baina eskola zaharra guzia  
bukatua balitz hobe,  
zirkuan hartu latigoa ta  
moldatzen ziran dotore,  
hautxo guziak begira jarriz  
mirabe guztien jabe,  
ezin al leike festarik egin  
besterik zigortu gabe? (bis)

Orain artean bizimodua  
igaroa det horrela,  
nere ondoan armatutako  
hiru lau gizon daudela,  
orain kanpora atera naiz ni  
garai batean bezela  
ta ikusten det nere ondoan  
lehoikumeak daudela.  
Aizu gizaki, zin dagit denak  
pagatuko'ituzutela. (bis)

## AGURRAK

*Doinua: Zer da gaur Donostian*

*Neurria: 10eko Txikia*

*Murua*                   Mugitu beharko da  
bazkaltzera edo,  
beste bat arte, agur,  
entzule bezero,  
majo zaindu gaituzu  
txaloz bero-bero,  
holako eseri aldirik  
ez dago goizero,  
ipurdia kuadratu  
zaizu onezkeru. (bis)

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Neurria: 8ko Handia*

*Egaña*                   Lasaitu gera domadoreak  
utzi gaitun esperantzan,  
lehoi portatu gerade baina  
ez degu inor erasan,  
Murua maixua ere sartu da  
geometriaren saltsan,  
kuadratura horrek ez du ajola  
saio borobila bazan. (bis)

*Doinua: Oholtza du zabal zabala*

*Neurria: 6 Puntukoa*

*Mendizabal*           Oholtza du zabal-zabala,  
kaiola hau genduala,  
esan ziteken domadorea  
gaur Martxeli zala,  
zirkoa bukatu ahala  
libre gera berehala,  
oraintxe gaude Afrikan dauden  
lehoiak bezala. (bis)

*Doinua: Minberatu zaizkigu  
Neurria: 8ko Txikia*

*Olaso*                    Gaurkoan ibili naiz  
nahiko narrastuta,  
"señores del jurado"  
kopeta beztuta,  
bazkaldutzeroa nua  
puntuak ahaztuta  
ta arkumeak larrera  
buztana moztuta.



*Doinua: Mundu honetan holako gauzak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Peñagarikano*      Euskal Herrian hain maite dira  
hainbat apustu ta joko  
eta horrexek sortu ohi digu  
guri hainbeste oztopo.  
Lehengo batean lagun batekin  
Tolosan egin det topo  
ta apustua jokatu nion  
hemen baietz egin poto,  
nik afaria irabaztearen  
orain egingo det "poto".

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*  
*Neurria: 8ko Haundia*

*Lertxundi*              Zaztada latzak eginak dizkit  
nerbioaren eztenak,  
ni're neureak hondatutzen nau  
ez nau galdutzen bestenak,  
bertsotarako gure karrerak  
hemen zituen azkenak,  
suerte on bat izan bezate  
aurrera dijoaztenak. (bis)

*Doinua: Txapeldunak txapeldunak*  
*Neurria: 8ko Zaharra*

*Telleria*                "Txapeldunak, txapeldunak,  
kantatzen da, oe! oe!"  
danak entzun nahi genduke  
baina batentzako gorde,  
orain agurtuta danok  
bazkaldutzea da hobe,  
Oñatira behintzat orain  
lasai juango gerade.

*Doinua: Arratsaldeon lendabizirik*

*Neurria: 8ko Haundia*

*Soroazabal*            Batzuen lanak beteko zuen  
bestena berriz murrizta,  
guk ahal deguna emana degu  
hortan ematen det hitza,  
zuen da gure harreman honek  
bide asko urra bitza,  
txapelketara bakarrik ez da  
mugatzen bertsolaritza. (bis)

*Saioa amaiturik eta epaimahaiak emandako puntuen arabera,  
hau izan zen sailkapena:*

Bertsolaria	Puntuaketa
EGAÑA	526,5
MURUA	513,5
PEÑAGARIKANO	507,5
MENDIZABAL	490,5
OLASO	482
SOROZABAL	481,5
TELLERIA	476
LERTXUNDI	473,5

*Beraz, eta lortu zuten postuaren bitartez, Finalerako sailka-  
tuak geratu ziren Egaña, Murua eta Peñagarikano.*

*Oñatiko saioa amaitu arte itxaron beharko zen talde honetako  
beste bostetatik inor sailkatuko zen ala ez jakiteko.*



# Oñati

1991-XII-8



*Oñatin, jende asko eta giro ederra.*

Oñatiko polikiroldegian, 1991ko Abenduaren 8an egokitu zen Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalerdi etako bigarren saioa. Laxaro Azkunek bertsozale guztiak agurtu ondoren, bai saio hartako entzuleak, bai txapelketa komunikabide bidez jarraitu zutenak ere, ohar bat adierazi zuen bertsolariak lanean jarri aurretik: Bertsolari Elkartearen ahal egina azpimarratu zuen SIADECO bertsolaritzaren fenomenoari buruz egiten ari den azterketa lana, ahalik eta egokien atera dadin; horretarako, entzuleei laguntza eskatu zien eta inkestak erantzuten saiatzera deitu. Besterik gabe, saio hartarako hitzemandazuden bertsolariak etorrarazi zituen eta hauek egin beharreko lana aipatu zuen. Hauexek ditugu, suertatu zitzaizen zenbakiaren arauera, zortzi bertsolariak: **Jon Sarasua, Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II", Jose Antonio Sasiain, Sebastian Lizaso, Jon Maia, Jesus Iribar "Olalde". Xabier Zeberio, Xabier Euskitze.**

## AGURRAK

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Sarasua*                      Azken gauean amets egin dut  
zoologikoan geundela:  
bi jirafa, lehoia, bi tximu  
gorila ta hiru gazela,  
domadorea atzian eta  
aurrean miroi tropela  
ta espero dut naturalezan  
itzuliko gaituztela,  
Beotibarko gartzela gaiko  
lehoi gaixoa bezela. (bis)

*Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko  
Neurria: 10eko Haundia*

*Loidisaletxe II*      Lehendabiziko jaun da andreok  
egun on bat deizuela.  
Badakizute txapelketaren  
kargapean gatozela,  
nahiz ta neretzat lortu ez leiken  
amets bat izan txapela,  
zin egiten det ahal dedan dana  
gaur saiatuko naizela,  
ia gutxinez portatzen naizen  
zuek merezi bezela.

*Doinua: Agur sagar beltzaran  
Neurria: 10ko Txikia*

*Sasiain*              Egunon lehendabizi,  
ohizko moduan,  
goizeko seietako  
jaikirik lehenguan,  
galtza motxak soinean  
hartuak nituan,  
Aia aldera juanda  
arkumea hartu nuan,  
Olasona nik daukat,  
eduki goguan.

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten  
Neurria: 10eko Haundia*

*Lizaso*              Agur entzule, lanera nator  
borondaterik onenez.  
Arantzazuko ama maitea  
aren egidazu babes,  
baldin txartela lortuko banu  
zuk egindako mesedez,  
Oñatitikan Arantzazura  
aldapa haundia denez,  
Arantzazutikan Oñatira  
etorriko naiz erromes. (bis)

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Maia*                    Ezer galtzeko ez daukagunok  
lo egin dugu ohean,  
ez beste batzuk bezela gurutz  
ta hiru kandelen pean.  
Ni finalera sartzen banaute,  
tabernarik onenean  
"txanpan" kopa bat eska zazute  
Jon Maiaren izenean;  
pagatu zuek pagatu baina  
edan nere omenean. (bis)

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Olalde*                    Kaixo entzule, iritsi gera  
Oñatira tipi-tapa,  
lehenez gainera gaur igo behar  
Arantzazuko aldapa,  
"jefe de filak" ere bistatzen  
binaka ta hirunaka,  
alkar hartuta hasten badira  
behetikan gora tiraka,  
nahiko lan badet kontrol barruan  
bukatzen gaurko etapa. (bis)

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Zeberio*                    Esan didate: Hi Zeberio,  
hago meta ailegatuta,  
alde batetik kilo gehiegi  
eta bestetik zahartuta.  
Ardo zaharra bezela nago ni  
ez nago horren txartuta,  
aldameneko gaztiak daude  
berriz haizea hartuta,  
ia bateonbat joaten dan isatsa  
hanka artean sartuta. (bis)

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neuria: 10eko Haundia*

*Euskitze*            Bejondaizula, entzule maite,  
                          hau da aberastasuna,  
                          kantatzeko gai bagera behintzat  
                          badago zeinek entzuna,  
                          iritsia da Abenduaren  
                          zortzigarren eguna,  
                          zure magalak argi dezala  
                          gure aldarte iluna,  
                          galdera askok izango dute  
                          gaur Oñatin erantzuna. (bis)

## **ZORTZIKO HAUNDIAN LAUNA BERTSO**

### **Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II"** **Jon Sarasua**

*GAI:* Nazio desberdinetako bi agintari zarete, Sarasua herri aberats batekoa eta Loidisaletxe herri behartsu batekoa. Loidisaletxeren herriak miloi-ka asko zor dizkio Sarasuaren herriari eta gaur Sarasua gainera kontuak eskatzera etorri zatzai.

*Doinua: Balentin Berriotxoarena*

*Sarasua*            Miloi mordo bat eman ditugu  
                          egundoko borondatez  
                          ta itzultzea tokatzen da orain,  
                          herri pobre, zure partez,  
                          barkazioa hitz hutsala da  
                          ta emango degu nekez,  
                          eskuzabalak bagera izan,  
                          baina inuxenteak ez. (bis)

- Loidisaletxe II* Diru aldetik zuk badaukazu  
lehen'e nik aina ondasun  
eta pentsatu egitekoa  
orain zer nola daukazun.  
Ba al dakizu zer estuasun  
orain jarritzen didazun?  
Ta dirurik nik ez nun eskatu,  
zeuk eskeini zenidazun. (bis)
- Sarasua* Beste aukerarik ez duzu, lagun,  
beste askoren antzera  
ta etor zaitetz Washingtonera  
hitzarmena sinatzera,  
letra txikitan klausulatxo bat  
ere badauka gainera,  
zeure Herria pobretu arren  
zeu aberastuko zera. (bis)
- Loidisaletxe II* Zu hasi zera orain ere ni  
makurtutzeko asmuhan,  
bainan gaur ere ez naiz diru hoi  
jaso nuneko damuan,  
gauza guztiak diran bezela  
oso itxura sanuan,  
diru guztia herritar danen  
tartian banatu nuan. (bis)
- Sarasua* Ikusten danez badegu hemen  
agintari zintzo pranko...  
Baina gaiztoa nagusi dala  
gaur argi utzi beharko.  
Nahi'zuna egin baina ez esan  
protesta eta holako,  
zuk dituzu ta kulpa guztiak  
beltza jaio zinalako. (bis)

*Loidisaletxe II* Razismoa da, eman didazu  
orain horrenbeste mezu  
ta gauz horrekin jarri a nazu  
beroturikan jo ta su,  
zure azalak argiak eta  
horren leunak dituzu,  
beltzak goserik ez daukatela  
orain pentsatzen al dezu? (bis)

*Sarasua* Kapitalaren lege haundiak  
ezin litezke puskatu,  
kate gogorra egin gendun da  
ezin zerate askatu,  
beltzak goserik baldin badaude  
ez da zurien pekatu  
eta limosna nahi badezue  
elizakoei eskatu. (bis)

*Loidisaletxe II* Beti mendean hartu nahi dute  
gure moduan dan ahula,  
pentsatu gero hainbat arazo  
geurekin baditugula.  
Horren estu ni hartzerik behintzat  
ez nun espero sekula.  
Egia da bai arrai haundiak  
txikiak jaten ditula (bis)

SARASUA: 26 - 26 - 25,5 - 25,5 - 27,5 - 29,5 = 160  
LOIDISALETXE: 23 - 24 - 25 - 24,5 - 27,5 - 29 = 153



## Joxe Antonio Sasiain - Sebastian Lizaso

*GAI:* Zu, Sebastian, ama izango zara eta Joxe Antonio bere semea. Semea kartzelan dago eta gauko bisitan hala esan dio amak bere semeari, Jose Antonioi: Zu kartzelatik irten arte gose greban hasi behar dut.

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Sasiain* Behin kartzelara sartu ninduten  
ta bixitara zatoz zu,  
eskertzen dizut eta berriro  
ere bisita nazazu,  
bainan mesedez ama oraingoz  
neri kasu egidazu,  
nik sufituta nahikoa da ta  
ama mesedez jan zazu. (bis)

*Lizaso* Kartzela baten sartu zinuzten  
irtetzen ez da erreza,  
nere ondoan zu ikustea  
eguneroko amesa,  
horregaitikan erabaki det  
gehio alimentuik eza,  
nolabait agertu behar dizut  
fameliaren babesa. (bis)

*Sasiain* Zure babesa gauz ederra da  
zergaitikan egin uko?  
Neroni ere hala naiz eta  
nere bihotza lekuko,  
nitaz ohartzen zera, amatxo,  
ta nola ez naiz poztuko,  
baina ni zure malko horiek  
ez naute berriz piztuko. (bis)

*Lizaso* Gu hizketan da etsaiak daude  
testigu hiru edo lau.  
Seme, zurekin pentsatzen nago  
aspaldian egun da gau,  
ez det indarrik galduko, seme,  
nahiz luzaro egin barau,  
zu askatzeko dedan gogoak,  
horretzek, indartzen bait nau. (bis)

*Sasiain* Ni askatzeko gogoia dezu  
normala da ta ezagun,  
ama semeok burua behintzat  
garbi eduki dezagun,  
orain artean laguntasun ez  
ez naiz sentitu alargun,  
indar gehiago izango zendun  
zuk ere jakia lagun. (bis)

*Lizaso* Geldik egonda zureg atikan  
egin neike ezer gutxi  
eta semea hemen usteltzen  
inola ezin dizut utzi,  
saiatzen banaiz kanpoan zera  
aurki, bihar edo etzi.  
Ama xaharrak ez du etsiko  
eta, semea, ez etsi! (bis)

*Sasiain* Behin beharda ere etsitze hori  
konpondu liteke laister,  
jateko asmoa hartu badezu  
hala ere ez da ezer,  
bizi zaitea ahalik ondoen  
nahiz ta ni aurkitu oker  
ta ni bizitzen saiatuko naiz  
zure laguntzari esker. (bis)

*Lizaso*

Seme, zu zera frutu gaztea,  
ni berriz arbola zaharra.  
Zahardadetik eman nahi diot  
gaztetasunai indarra  
ta zure alde dadukat seme  
hemen saiatu beharra,  
zu nola zeran nik bizitzeko  
dedan motibo bakarra. (bis)

SASIAIN: 24 - 25 - 27 - 26,5 - 27 - 28,5 = 158  
LIZASO: 25 - 27 - 27,5 - 27,5 - 30 - 30 = 167



*Jose Antonio Sasiain gaztea. Urduri egon zen bidaniarra.*

## Jon Maia - Jesus Iribar "Olalde"

*GAA:* Olalde aita eta Maia bere alaba izango zerate. Klean bizi den alabak, Maiak, neku gogorretik babesteko kale-etxera ekarri du bere aita zaharra. Goizero, leihotik baserri aldera begira ikusten du ordea alabak.

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Maia*               Negar malkotan nere aitaren  
begietako dirdira,  
pentsatzen dago: Nere pausoak  
goraino joango balira...!  
Egun batean joango gara  
berriz ere baserrira,  
neguan hemen hobeto zaude,  
ez zazu haruntz begira. (bis)

*Olalde*              Ordu goxoak zure ondoan  
nahiz eta hemen igaro,  
nere buruan daude ardiak  
eta hainbeste ganado,  
martxa honetan ezin jarraitu  
ondo bizitzen luzaro,  
nahiz zure babesa hemen izan  
nere etxea han dago. (bis)

*Maia*                Etxeko aitak kejak badauzka,  
beti ere ugariak,  
entzute hutsaz zure aurrean  
gorritzen zaitzkit begiak,  
esan dituzun hitz guzti hoiek  
ez dira orain egiak,  
garantzi gehio zerk dauka aizu,  
etxea ala familiak? (bis)

*Olalde*              Penaturikan zuk eskatuta  
etorria nintzan handik,  
urte batzuek igarotzeko  
gogoa daukat oraindik,  
eskertzen dizut zure harrera  
asko maitatzen zaitut nik,  
joaten banaiz'e ez zazu hartu  
alaba gauz horren penik. (bis)

*Maia* Aita, konpondu behar degu hau  
aurrera edo atzera,  
zahartuz baina portatzen zera  
ume koxkorren antzera,  
egun batetan gaixotasunez  
gaixki ipintzen bazera,  
baserri raino igoko zaitut  
azken amasa hartzera. (bis)

*Olalde* Lau hormaren barruan izango  
det nik hemen hainbeste gaitz,  
egia esan ez naiz arkitzen  
gaur oso itxura alaiz,  
lehengo lurretara joateko  
oraindikan nago garai z.  
Barka, alaba, baina mendian  
ni ondoen ibiltzen naiz. (bis)

*Maia* Mendian ondo zabiltzala zu  
esaten didazu ozen  
baina hitz hori ez da nahikoa  
denok kontura gaitezen.  
Berriketaren bide honetan  
nola ez gabiltzan zuzen,  
hartzazu salda, eman eskua  
ta pasiatzera goazen. (bis)

*Olalde* Eskerrikasko alaba maite  
ez dezu merito gutxi,  
hori esanda nere bihotza  
gaur erabat dezu hautsi,  
jaio nintzan lur maite huraxe  
noia behar det nik utzi,  
neure ilobai ere bidea  
nahi nieke erakutsi. (bis)

MAIA: 24 - 24,5 - 25 - 27,5 - 27,5 - 28,5 = 157  
OLALDE: 24,5 - 24 - 26 - 27,5 - 27,5 - 28 = 157,5

## Xabier Zeberio - Xabier Euskitze

*GAA:* Zu, Euskitze, rock talde bateko kantaria zara eta Zeberio berriz jarraitzaile sutsua. "Delirium Tremens" rock talde ospetsuak, jakina denez, orain dela gutxi eman du bere azken kontzertua. Kontzertu ondoren zuen elkarizketa jakin nahi genuke.

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Zeberio* "Delirium Tremens" zer hitz da hori?  
Zu kantari hor zabiltza  
eta nik berriz zure atzetik  
daramat nere bizitza.  
Hori zan konzierto txarra ta  
hoi zan musika eskeintza!  
Nahiago nuen Arantzazura  
mezeta jua banintza. (bis)

*Euskitze* Aspaldi hontan ez nuen entzun  
nik hain arrazoi eskasik,  
esan duenez Arantzazura  
joango litzake pozik.  
Beste biderik ez degu izan  
erretiratzea baizik,  
jarraitzeko ere ez bait da izan  
behar ainako babesik. (bis)

*Zeberio* Sarreraren zai hor egon gera  
hiru bat lau orduan.  
"Kristoren pesta badiau hemen!",  
halaxe pentsatzen nuan.  
Musikajole xelebren batzuk  
ta lau porrero onduan,  
jo ber bazute jo hor musika  
dantza egiteko moduan. (bis)

*Euskitze*            Hau "Deliriumsena" jarraitzaile zen  
beste hainbaten antzera,  
gure taldea beraien erruz  
bihurtu zaigu hutsera.  
Oharkabea erori zera  
lau porreroren tartera,  
zeuk bi kalada jo dituzu ta  
deliratzen ari zera. (bis)

*Zeberio*            Nik bi kalada joagatikan  
dantzarako nago ondo.  
Hau bi gitara, bateri xahar bat,  
pandero ta hiru bonbo.  
Garai batean bezela jo hor  
pasodoblea ta tango,  
nahi dan tokian hik jo zak baina  
ni gehio ez nauk juango. (bis)

*Euskitze*            Gaur arte juxtu iraunak gera  
hiru katuren gerizan,  
gehiago ezin segi liteke  
datorrenaren peskizan.  
Pintzadun prakaz ta tripa haundiz  
Olentzero baten gisan,  
era hontako jarraitzaileak  
ez ditugu asko izan. (bis)

*Zeberio*            Lau tximaluze, beste lau punky  
eta beste lau porrero,  
hiru lau porro erretakuan  
danak jartzen dira bero.  
Lepamehe honek azkenen berri z  
hor deitu dit Olentzero,  
ta berak azkenen bukako du  
puti-klub baten portero. (bis)

*Euskitze*

Gaur Olentzero jarri a zaigu  
nahiko adar jotzailea,  
ez zaio asko gustatu nere  
itxura eta ilea.  
Nola arraio izan ote da  
hau gure jarraitzailea?  
Askoz gehiago ez al du ematen  
Arantzazuko prailea? (bis)

ZEBERIO:  $23,5 - 24 - 22,5 - 24,5 - 30,5 - 29,5 = 154,5$

EUSKITZE:  $27,5 - 27 - 27,5 - 28,5 - 31 - 29,5 = 171$

## **BAKARKAKO LANA**

- Bukaera emanda Zortziko Haundian bertsoa osatu.
- Hasierako puntua emanda Zortziko Txikian bertsoa osatu.

## **Jon Sarasua**

*Doimua: Hara nun diran mendi maiteak*

Haurren galderak izaten dira  
erantzuteko zailenak.

Anai, zergatik daude goseak  
Arikako beltz gehienak?  
Eta zergatik ematen dira  
arnak iteko ordenak?  
Zergatik hiltzen dituzte tiroz  
defentsa gabe daudenak?  
Haurren galderak izaten dira  
erantzuteko zailenak. (bis)



*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Esku hutsik al zatoz  
                         pelotalekura?  
                         Pelotan egiteko  
                         badaukat figura,  
                         nahiz eta igual izan  
                         txikitxo itxura,  
                         nerekin neurtzerikan  
                         inork ez du gura.

13,5 - 14,5 - 15 - 15 - 16 - 15,5 = 89,5

## **Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II"**

*Doinua: Garai bateko baserritarra*

*Bukaera*            Alde daudenak izango dira  
                         aurka daudenak hainbeste.  
  
                         Autobia hoi dala ta ez dala  
                         kontu asko dijoazte,  
                         beste gauzarik ez da entzuten  
                         hemen ez jai ta ez aste,  
                         bozketaren bat egitea ere  
                         pentsatuko balitz laiste,  
                         alde daudenak izango dira  
                         aurka daudenak hainbeste.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Santa Luzi egunez  
                         Zumarran feria.  
                         Etortzeko bazeukat  
                         nahiko inbiria,  
                         hor eman nahi zeoat  
                         tratui haseria,  
                         hitzean saltzeko dit  
                         nik asto paria.

11,5- 12,5-13-12- 14,5- 14,5 = 78

## Joxe Antonio Sasiain

*Doinua: Erreguetan ari nintzela*

*Bukaera*

Bertsolarion infēnua ta  
bertsozaleen zerua.

Oraina bistan daukagu jaunak  
ta ikusteke gerua,  
gu larri xamar kaka daiola  
eta jendea berua,  
hona etortzeko zer krixto nago,  
buru galdu edo erua?  
Bertsolarion infēnua ta  
bertsozaleen zerua.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*

Kobratuko al dezu  
Abenduko extra?

Laxaro jarri didak  
egundoko festa,  
orain arte're ez nago  
soldataz gainezka,  
kobratzen badet ere  
zuretzako ez da.

11,5- 12,5-13,5-13,5 - 14 - 13,5 = 78,5

## Sebastian Lizaso

*Doinua: Galderatxo bat egin didazu*

*Bukaera*            Neure aurrean ikusten zaitut  
inoiz baino ederrago.

Hara maitea, zuri kantuan  
hasi beharrea nago,  
hau esateko lehendikan ere  
nola neukan hainbat gogo,  
ez dizut nunbait ondo beiratu  
etorri baino lehenago,  
neure aurrean ikusten zaitut (bis)  
inoiz baino ederrago.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Diputatu nagusi  
dugu Eli Galdos.

Hortarako tratua  
egin zun apropos,  
gazteak atzetikan  
jarraika ez gatoz,  
bera pozik bada ere  
ni ez nago ados.

14-14- 14,5- 15-17- 16= 90,5

## Jon Maia

*Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu*

*Bukaera*            Beharrak ez du sekula jotzen  
palazioko atea.

Norbaitek ondo ez badu hartu  
komeni da esatea:  
Guk badakigu diruak nola  
daraman borondatea,  
gutxi batzuen mesedea ta  
beste askoren kaltea,  
beharrak ez du sekula jotzen  
palazioko atea.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntuak*            Erdi finaletara  
nola pasa zera?

Puntuak jasoz beti  
askoren antzera.  
Konforme nagoela  
ez noa esatera,  
oraindik jua nahi nuke  
bidean aurrera.

12,5 - 11,5 - 12,5 - 13,5 - 14,5 - 14 = 78,5

## Jesus Iribar "Oialde"

*Doinua: Zuk badakizu gure txikiak*

*Bukaera*                    Euskarak ez du lekurik nonbait  
Aramaiotik aurrera.

Euskera ez da gaurko gauza bat  
aspalditik du karrera,  
nola onartu gizon batzuek  
beraz daukaten harrera.

U.A.ko batzuk ai dira esaten:  
"Gu euskaldunak ez gera".

Euskarak ez du lekurik nonbait  
Aramaiotik aurrera.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*                    Urbiko gazta dago  
Arantzazun salgai.

Pusketa bat jateko  
oraindik nago gai,  
baso ardo eranez  
senti neike alai,  
etxera ere bakar bat  
gaur eram an nik nahi.

11,5 - 11,5 - 12,5 - 13 - 13,5 - 13,5 = 75,5



*Jesus Iribar "Olalde"*

## Xabier Zeberio

*Doinua: Andre Madalen, Andre Madalen*

*Bukaera*            Zeru ta lurrek bat egin arren  
ni ez naute mudatuko.

Gizen xamarra nola naguen  
zinateen konturatuko.  
Askok diote: "Kilo batzuek  
hik ez al dituk kenduko?"  
Gaur ensalada, txuleta haundi bat  
bazkarin daukat lekuko.  
Zeru ta lurrek bat egin arren  
ni ez naute mudatuko.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Oñatitik Urbira  
praileak nagusi.

Ta Arantzazu paren  
diru eske hasi,  
ez juatea ordun  
hobe degu kasi,  
gaur ere zai han daude  
saski eta guzi.

12,5- 13- 12,5-14-15-14,5 =81,5

## Xabier Euskitze

*Doinua: Orain bertsotan hasi nahi nuke*

*Bukaera*            Biziak asko balio du ta  
kontuz ibili zaitezte.

Orain bertsotan hasi nahi nuke  
prudentzi pixkaten eske. (bis)  
Abiaduran ibili ohi da  
makina bat kotxe traste,  
errepidean hil dira hainbat  
neska eta mutil gazte,  
biziak asko balio du ta  
kontuz ibili zaitezte.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Jakin nahi al zenuke  
kartzelako gaia?

Zerbait txibatzeko ere  
badezu garaia,  
zu beti izan zaitut  
nik lagun alai  
baina propinaik gabe  
ez dago lasaia.

14 - 13,5 - 13,5 - 14,5 - 15,5 - 15 = 86



## HAMARREKO TXIKIAN HIRUNA BERTSO

### Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II" Joxe Antonio Sasiain

*GAI:* Zuek aitona eta amona zarete. Amona Loidisaletxe eta aitona berriz Sasiain. Biok elkarrekin argazki zaharrak ikusten ari zaretela, neska polit bat izendatu dizu aitona eta hala esan: "Hauxe izan zen neri lehen musua eman zidan neska."

*Doinua: Hamalau heriotzera*

*Loidisaletxe II*      Nolakoak ginaden  
                             ikusi gaztetan,  
                             aldakuntzak badira  
                             azkeneko urtetan.  
                             Neskata bat ikusi  
                             ta esan dit benetan  
                             musu eman zirala  
                             beronek gaztetan.  
                             Nere ustez izan zan  
                             soilik ametsetan.

*Sasiain*                Oraindik gogoan det  
                             beraren itzala,  
                             esaten zidan: "Mutil  
                             on da zerbitzala."  
                             Ta muxu eman nion  
                             aitortzen det hala,  
                             gizakiok sarritan  
                             ohi degun bezala.  
                             Jakin zu esnatzerako  
                             ni jaiotzala.

*Loidisaletxe II* Ez zaitetz hasi orain  
horta sua pizten,  
baten balorea ez da  
horrenbeste jeisten  
eta ez hasi orain  
ni baztarrezten,  
egia da nik hori  
ez bait det irizten,  
nik behintzat batetxo're  
ez dizut sinisten.

*Sasiain* Amona badaukazu  
makina bat alu  
baina hark ere zerbait  
politikan badu.  
Pena bat det nik hura  
alperrikan galdu,  
geroztikan ez zaizkit  
gehiagi ugaldu,  
Ojala! zure ordezt  
hura hartu banu.

*Loidisaletxe II* Gauza horregatikan  
ajolarik etzat,  
erantzunak badaude  
galdera danentzat  
eta zuri're zerbait  
esango'izut behintzat:  
Neu lehelena nitzala  
iruditutzen zat  
ta ezautu ez banuen  
hobea neretzat.

*Sasiain* Ez ezagutze hori  
alperrik arako,  
mila kontu dabilzki  
eta mila kako,  
orain bezela ordun'e  
maitasunez plako,  
kontu zahar ugari  
dakar neretzako,  
ura joanda gero  
presa zertarako?

LODISALETXE: 14,5 - 14 - 15 - 17 - 19,5 - 20 = 100  
SASIAIN: 14,5 - 15,5 - 17,5 - 17,5 - 18 - 20,5 = 103,5

## **Sebastian Lizaso - Jon Sarasua**

*GAI:* Sarasua Arantzazuko prailia izango zaitugu eta Sebastian txoferra.  
Prailiak txofer honen kotxea bedeinkatu zuen baina zazpi bat istripu  
izan omen ditu gero, handik ondoren.

*Doinua: Antton eta Maria*

*Lizaso* Kotxea erosita  
Arantzazura fin,  
bedeinkatu nahi nuen  
suertea izan zedin,  
bainan istripu pranko  
badaukat nerekin.  
Hantxe jardun zinaden  
isipuarekin,  
bedeinkatu al zendun  
limonadarekin? (bis)

*Sarasua*           Badaukat gauzatxo bat  
esan beharrekua:  
beti ez da izaten  
debalde jokua,  
Toyota atera da  
suerte txarrekoa,  
isopuai nik eman  
astindu nahikua  
baina zu zera gizon  
fede gutxikua. (bis)

*Lizaso*           "Bedeinkatuta dago  
denbora guziko".  
Hori esan zenidan  
zuk lehendabiziko.  
Suerte txarragorik  
ez nun mereziko,  
fraile txikitxo da,  
dirudi mutiko,  
paratxoketik gora  
ez zan iritsiko. (bis)

*Sarasua*           Oso gutxi eman da  
gero asko eska,  
ez da horrelakoa  
frailearen festa,  
San Pedrok egin zidan  
goitikan protesta,  
bedeinkatze lanatik  
berroitamar pezta,  
hori gaur egunian  
ia ezer ezta. (bis)

*Lizaso* Honek ez ditu bete  
obligaziuak  
eta hortikan datoz  
gero sesiuak,  
ez al dizu laguntzen  
zuri juiuziak?  
Zeuk jarri bait zenitun  
hango preziuak,  
garantirik bai al du  
bedeinkaziuak? (bis)

*Sarasua* Lagunaren burua  
nahi nuke zuzendu,  
garantia ezin da  
betiko mantendu,  
zerua ez da inoiz  
seguru izandu,  
zerbait eskeintzen degu  
baina zerbait kendu,  
lehen Zeberio jaunak  
ederki esan du. (bis)

LIZASO: 21,5-20,5 -21 -20,5 -23,5 -22,5 = 129,5  
SARASUA: 18,5 - 17,5 - 19 - 19,5 - 22 - 21,5 = 118

## Xabier Zeberio - Jesus Iribar "Olalde"

*GAA:* Olalde ezkontzera doan andregai da eta Zeberio jostuna. Orain hilabete josi zizun ezkontzeko jantzi dotore bat. Ezkontzeko bezperan hasi zera probatzen eta jantziak lotu ezin.

*Doinua: Antton eta Maria*

*Olalde* Ezkontzarako ondo  
nahi nun preparatu,  
traje bat egiteko  
modistai eskatu.  
Probatzen hasi eta  
ezin bertan sartu,  
gerrialdetik dena  
egin zait puskatu.  
Aizu, neurriak ondo  
ez zinuzun hartu. (bis)

*Zeberio* Ezkontzeko bezperan  
zerade bildurtu,  
jostunaren kopetik  
ez dezu zimurtu,  
eguna ezkontzeko  
orain dago gertu,  
neurriak ez nitula  
nik itxuraz hartu...  
Behar ez dan lekutikan  
zerbait zaitzu sartu. (bis)

*Olalde* Nahiz eta etxean ni  
hain ondo mantendu,  
oker zabilta gaur zu  
nahi zaitut zuzendu.  
Tela zergatik horri  
zuk diozu kendu?  
Hilabete batean  
ni ez naiz gizendu,  
ondo egongo zan, ondo  
zuk egin bazendu. (bis)

*Zeberio* Jostunari zertako  
orain egin burla?  
Eta esan didazu  
nagoela ahula.  
Joan dan hilabetean  
jar zera mardula,  
ona al zegon, aizu,  
nobion brujula?  
Ezkondu arte ez da  
proba ber sekula. (bis)

*Olalde* Holakoak entzunda  
beretzako kalte,  
neri mutilak aizu  
asko bait dit maite,  
zuk berriz jostunetik  
ez daukazu bat'e,  
ez nizun ezagutzen  
egia esan gaur arte.  
Berria egin zazu  
ta ixildu zaitte. (bis)

*Zeberio* Hauxen da nobia  
tarteko jokua,  
oain hilabete bazun  
soinekok lekua,  
jostun hau ez pentsatu  
danikan kaikua,  
oain berria egiteko  
alajangoikua!  
Egin behar dana da  
haurran soinekua. (bis)

OLALDE: 16,5- 18- 18,5- 18- 19- 20,5 = 110,5  
ZEBERIO: 18- 20- 18,5- 20- 22,5- 22,5 = 121,5



*Xabier Zeberio bota du bere horietako bat. Jendea gustora.*



## Jon Maia - Xabier Euskitze

*GAI:* Maia izango da senarra eta emaztea Euskitze. Maia txirrindularia du-  
gu, aurtengo urte honetan Frantziako Tourra korritu du eta Tourra as-  
palditxo bukatu baldin bazen ere, oraintxe, aste honetan, etorri da  
etxera.

*Doinua: Ai gure antzinako*

*Euskitze*            Nere senar maitea,  
                             ziklista iaiua, (bis)  
                             gorputz eta izatez  
                             hortako jaiua.  
                             Uste dezu naizela  
                             tuntun arraiua,  
                             ez dago oso goxoa  
                             nere jeniua...  
                             Orain bukatu al da  
                             zelebraziua? (bis)

*Maia*                    Bizikletan pasa det  
                             Frantzia osua, (bis)  
                             pelotoian badaukat  
                             halako pisua.  
                             Azafatak emanik  
                             dotore musua,  
                             erabakia hartzea  
                             ez zan erosua,  
                             bitan zein aukeratu  
                             zu edo "Franzia"? (bis)

*Euskitze*            Beraz bihurtu zera  
                             edozeinen zezen, (bis)  
                             horren errezeloa  
                             banuen hain zuzen.  
                             Bada garaia gauzak  
                             argitu daitezen,  
                             entenditua ez naiz  
                             baina det hainbat sen,  
                             hango kotxe-eskoba  
                             aspaldi pasa zen. (bis)

*Maia* Esan didazu hori  
ia pasa dala, (bis)  
zure aurrean nago  
zurituz azala  
ta eska nahi nizuke  
nola edo hala,  
Frantzia aldetikan  
etorri bezala,  
probatu nahi det zure  
puerto espeziala. (bis)

*Euskitze* Gauzak esaten ditu  
pentsatu bezala, (bis)  
uste du emaztea  
ttuntun hutsa dala  
baina ezagutzen det  
honen martingala,  
probatu nahi du nere  
puerto espeziala.  
Askok probatu dute  
zu bertan zinala. (bis)

*Maia* Beraz nere bidea  
ez nuen zuzendu (bis)  
ta han egindakoa  
ezin det konpondu,  
kronometroa utziz  
egiten naiz ondu,  
ez bazaude gustora  
hemendik aldendu  
ta super gizonekin  
ez zaitez ezkondu. (bis)

EUSKITZE: 22,5 - 21,5 - 23,5 - 22,5 - 23,5 - 23,5 = 137  
MAIA: 17,5 - 17 - 17 - 19,5 - 19 - 20,5 = 110,5

## KARTZELAKO GAIA

- Hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

*GAA:* Zu sendagile ospetsu bat zara, zure bizitza osoa daramazu bihotzeko gaitzak ikertzen eta sendatzen. Gaur zeure emaztea operatu behar izan duzu baina ez da suerterik izan.

### Jon Sarasua

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Bihotz eriak senda ta senda  
pasa det hainbat denbora  
eta azken a nere emaztea  
mundu hontatik joango da.  
Erdi eroa jarri a nago  
ezin aldegin inora,  
oihu bortitz bat bota nahi nuke  
Jangoikoaganantz gora,  
bereagatik neurea ere  
emango nuen gustora. (bis)

Akabo ditut ilusioak,  
akabo nere afanak,  
lana uzteko tentazioak  
ere badituzte izanak,  
baina oraindik min egiten dit  
kontzientzian esanak,  
gaur huts egin det ta hau gaitzen  
edukiko dituzte lanak,  
baina betiko hor gelditzen dira  
lehen salbatu dituzte. (bis)

Agur emazte maitagarria  
gure bizitza akabo.  
Ia jarri naiz, emazte maite,  
oroitzapenen esklabo  
baina zuk hau esango zenduke:  
"Jarraitu beharra dago".  
Nahiz eta orain ez jarraitzea  
izango nuken nahiago,  
mediku nintzen, medikua naiz  
eta oso harro nago. (bis)

20,5 - 20 - 19,5 - 21 - 23,5 - 21,5 = 126

## **Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II"**

*Doinua: Gai honek badu mamia  
Neurria: 12ko klasikoa*

Nere bizitza osoa  
lan hontan eramanik,  
seguruenikan badet  
gaur hemen zer esanik.  
Emaztea gaixotu da  
ta asko maite nuan nik,  
medikuaren langintza  
berezia izanik,  
berari laguntzen saiau  
askozaz'e oraindik,  
ez nun pentsatzen hau neri  
gertauko zitzaidanik. (bis)

Ahaleginak egin ditut  
besterik ezin ezer,  
ebakuntza bukatu da  
eta orain hara zer!  
Gauza batzuek joanak  
dira hor nunbait oker,  
sufirmentu haundinean  
jarri behar det laister,  
nahiz ta lana egin dedan  
bestekin hainbat bider,  
lagun asko bizi dira  
nere langintzai esker. (bis)

Beti ez da hain berdina  
lan ondoen ondorena,  
eta hau da zoritxarra  
orain gerta zaitena,  
nere desgrazia izan da  
benetan nabarmena,  
nere ustez eginikan  
ahal zan lanik onena,  
bihotz barruan gauz batek  
ematen dit nei pena,  
eskutatik juan zaidala  
gehien maite nuena. (bis)



*Juan Jose Eizmendi "Lodisaletxe II"*

## Joxe Antonio Sasiain

*Doinua: Pello Josepe tabernan dela*  
*Neurria: 8ko Haundia*

Sendagileok pasa ohi degu  
hainbat traba eta pena.  
Nere emazteak minez omen zun  
aspalditxoan barrena,  
hemen negoen hain ospetsua,  
sendagilerik onena  
ta era honetan utzi beharra  
gehiena maite nuena!

Hara emaztea, hitz hau esanda  
agur egingo dizut nik.  
Nere emaztea bidalia det,  
ez dadukat beste penik  
eta gehiago ere ebakiz  
segitu behar oraindik.  
Zure bihotza bezela ere  
nerea ebaki det nik.

Hainbat ebaki izan ditut nik  
begitan daukat negarra  
ta kentzen errez ez det izango  
nere malkoen txingarra,  
bizitza osoko nerekin daukat  
nahigabe ta zoritxarra,  
hainbeste ondo atera zaizkit,  
oain hau gertatu beharra!

## Sebastian Lizaso

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Sendagilean karrera nuen  
gazte nintzadela egin  
eta geroztik sendatua det  
ziur ez dakit zenbait min.  
Behin behar eta gogo haundiaz  
gaur saiatu naiz ahalegin  
bainan biziak eskuetatik  
zoritarrean aldegin,  
ezezagunak sendatu ditut  
ta neure maitea ezin. (bis)

Malko iturri ditut begiak  
hau da hau egonezina,  
ai! nik baneki nola isildu  
daukaten negar zotina.  
Ebakuntzaren arriskua zan  
aldiz aurretik jakina,  
aurrera ere jendearekin  
egingo det ahalegina,  
beste inortxok senti ez dezan  
orain nik daukaten mina. (bis)

Zu sendatzeko andre banuen  
gaurkoan borondatea,  
zoritarrean gertatua da  
behin betirako joatea,  
ezinezkoa orain neretzat  
nik bizia ematea,  
negar malkotan itxi behar det  
zerraldoaren atea.  
Barka zaidazu eta adio  
nere emazte maitea. (bis)




## Jon Maia

*Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Nota onenez pasatu nuen  
gazte garaian eskola,  
Residentzira pasa ninduten  
lanak egiteko hola.  
Gaur emaztea hilikan dago  
nik ez det ulertzen nola,  
hala ta guztiz negar malkorik  
ez det egingo inola,  
nahi eta ezin holaxe bait da  
bizitzaren parabola. (bis)

Ordu luzetan pentsatu eta  
kostatzen zait ulertzea,  
ez da hain zaila norberak bere  
emaztea maitatzea,  
kontura naiz ni nolatan ase  
medikuntzaren gosea.  
Neri zergaitik toka behar zait  
era hontako trantzeta?  
Nere besotan izan nuana  
nere eskutan hiltzea. (bis)

Orain nolatan aldenduko det  
nere barneko samina?  
Tresna guztiak eskutan baina  
hori nahi eta ezina.  
Ia zeharo belztua dago  
lehen zegoena urdina,  
esperantzarik ez nuen galdu  
bainan orain daukat mina,  
nik gehiagorik ezin nun egin,  
hortxe dago ahalegina. (bis)



*Jon Maia gazte zumaiarra*

## Jesus Iribar "Olalde"

*Doinua: Semaforoak gorri ta berde*  
*Neurria: 10eko haundia*

Ni sendagile ospetsu bat naiz,  
operaziotan abil,  
jendeak ere ezagutzen nau  
zurrumurrua badabil.  
Emaztea gaixotu zitzaidan  
eta ez nengoen trankil,  
ahalegin denak eginak ditut  
jarririk apal eta umil,  
hainbat bizitza salbatu ditut  
eta emaztea zait hil. (bis)

Egia esan ebaketa zen  
haundia eta mardula,  
zenbat zain eta zenbat odol han  
ia ezin det kalkula.  
Neure onetik aterea naiz  
ia galdu zait brujula,  
etsipenean jota nago gaur  
ta ezin det disimula,  
hor ikusten da haundinak ere  
muga bat badaukagula. (bis)

Ai emaztea! Hila zaitut gaur,  
hizketara zuzenean.  
Hainbat urtetan zure ondoan  
ibilia naizenean,  
lan denak utzi, pentsamenduak  
datoz holako unean,  
hala ta guztiz ofiziu a  
sentitzen det barrenean,  
nahiz eta zu hil jarraitu nahi det  
bestereztako lanean. (bis)

## Xabier Zeberio

*Doinua: Aizakhi mutil mainontzi*  
*Neurria: 6 Puntukoa*

Nere bizitza laurdena  
edo bestela gehiena  
sendagintzan nik klinika baten  
eraman det ena,  
eta emaztearena  
neuk dadukat nahiko pena,  
Jaungoikuari eskatzen diot  
orain barkamen a. (bis)

Gauza asko ditut ikasi  
ta bihotz asko ikusi,  
emazteana azkenik zegon  
nahikua itsusi,  
betiko joan da igesi,  
akaso zeiteken bizi,  
nahiago nuen opizio hontan  
ez banintzan hasi. (bis)

Gauz bat nua esatera  
eta ez da izakera,  
batera ezkondu eta gu biok  
biziak batera,  
orain urtetik urtera,  
azkenean zu lurpera,  
egunen baten bestian berri z  
alkartuko gera. (bis)

## Xabier Euskitze

*Doinua: Semaforoak gorri ta berde*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Medikuntzaren alor zailean  
ikertu izan dut fin-fin  
bihotz koitadu hoi en taupadak  
azterzen hainbat ahalegin.  
Baina garaia heldu da eta  
ez dut ezer asko egin,  
ez dakit orain izango naizen  
zutikan irauteko din,  
besteren hainbat salbatu ondoren  
neurerik salbatu ezin. (bis)

Medikuntza da nere jardun a  
horixe nere eskeintza  
baina oraintxe iritsia zait  
benetan une bortitza.  
Nahi ainakoa ez da izan gaurko  
ebakuntzaren emaitza,  
nere emazte maite kuttunak  
ezin aguantatu gaitza,  
jakintzak ez du erabakitzen  
noiz bukatzen den bizitza. (bis)

Bisturiek in guante txuritan  
ahaleginaren eskeintzan,  
lehen ikasiak eskeini didan  
konfiantzaren gerizan.  
Neure emaztea gaxotu eta  
suerterik ez dugu izan.  
Baina horretan jarraituko dut  
geratzen zaidan bizitzan,  
zu salbatu ez zaituen honek  
besteak salbatu ditzan. (bis)

## AGURRAK

*Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Sarasua*            Besteak larri-larri ikusiz  
                          pozik egongo zinaten,  
                          neroni berriz lasaitua nai z,  
                          akabo halako baten,  
                          ez badidate joan beharreko  
                          pasaporte ematen,  
                          barka lagunak, belodromoan  
                          entzule ez ban aiz izaten,  
                          Santamasetan koplak kantatu  
                          behar ditugu Arrasaten. (bis)

*Doinua: Zer da gaur Donostian*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Loidisaletxe II*    Norabaitera joan  
                          aurrez bazk altzera,  
                          entzule zeratenok  
                          noa agurtzera,  
                          txapelketa ere bai  
                          zuekin batera,  
                          kanpoan diran beste  
                          zazpikin batera,  
                          Donostira joango naiz  
                          bestek txalotzera. (bis)

*Doinua: Pello Josepe Tabernan zela*  
*Neurria: 8ko Haundia*

*Sasiain*            Gaurko honetan espero nuen  
                          han goiko hoi en babes  
                          baina hala ere nahiko luzea  
                          nik gaur eman dedan meza,  
                          ordu ta erdi aritua naiz  
                          erreza eta erreza,  
                          izanez ere ez dunak eman  
                          ez bait da gauza erreza.

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Lizaso*                    Bertsolaritzan zeruan dago  
izar askoren dizdira,  
kantatzen asko, askoz gehiago  
entzuten eta begira.  
Nahiz ta jakin ez iritsi geran  
behar genduen neurrira,  
agur eginda bagoaz orain  
bakoitza bere tokira,  
bihotz bihotzez nere txaloak  
entzule zuretzat dira. (bis)

*Doinua: Amak ezkondu ninduen*  
*Neurria: 8ko Txakia*

*Maia*                    Hara zer gustora nagon  
tralari larira. (bis)  
Nere bihotza berriro  
normaltzen ari da. (bis)  
Mordoxka bat bilduko  
genduken sikira,  
jo dezuten txalo bakoitza  
puntuak balira. (bis)

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Olalde*                    Hasi behar bazan, hasi ginan da  
gaur bukatzeko ordua,  
nola ukatu, sufritu degu  
beti bezela mordua,  
zertan kejatzerik ez daukagu  
geurea izanik gogua.  
Agurtzen ditut gaijartzaileak,  
agurtzen det juradua,  
agurtzen zaitut entzule maite,  
zuretzat nere txalua. (bis)

*Doinua: Bedeinkatua izan dedila III*  
*Neurria: 4ko Haundia*

*Zeberio* Txapelketari kanta nahi diot  
orain "Requiem aeternam",  
ta inork gonbidatutzen banau  
lasai bazkaldu tabernan.

*Doinua: Nagusi jauna hauxe da lana*  
*Neurria: Berezia*

*Euskitze* Kartzela hontan ez zen kumunik,  
ia praketa pixa egin dut nik,  
nahiko urduri nengoen nunbait,  
txaketa ere bertan ahaztu zait  
baina kezkatu  
ezin jarraituko degu beti.  
Eskerrak eta agur Oñati.



*Agurren ondoren, saio honetako sailkapena eman zen aditzera:*

Bertsolaria	Puntuak eta
EUSKITZE	530,5
LIZASO	528
SARASUA	493,5
ZEBERIO	480,5
OLALDE	476,5
MAIA	467
SASIAIN	455
LOIDISALETXE II	454

*Sailkapenak eta puntuaketak ikusirik, ondorengo zortzikote honi zegokion Abenduaren 22an, Donostian, finala jokatzeara.*

Xabier "EUSKITZE"	(postuz, Oñati)
Sebastian LIZASO	(postuz, Oñati)
Ion SARASUA	(postuz, Oñati)
Andoni EGAÑA	(postuz, Tolosa)
Ange M <sup>a</sup> PEÑAGARIKANO	(postuz, Tolosa)
Mikel MENDIZABAL	(puntuaz, Tolosa)
Martin "OLASO"	(puntuaz, Tolosa)



**FINALA**

**Donostia**

1991-XII-22



*Anoetako belodromoa jendez gainezka. Finalistak saioari hasera emateko gertu.*

Martxeli Sagastume eta Laxaro Azkunereren gidaritzapean eratu zen saioa. Martxelik egin zituen aurkezpen eta protokolo-lanak, eta Laxaro aritu zen bertsolarietara gaiak ematen:

"Azkenean ailegatu gara Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak antolatuta egiten ari den 1991ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken ekitaldira. Urriaren 25ean Antzuolan ekin genionetik 11 saio joan dira, beste horrenbeste herritan. Bost izan ziren kanporaketak, 4 final laurdenak, 2 azken aurrekoak, eta gaurko Finala jokatzeko prest gaude.

Txapelketa hau, ohi bezala, borondatezko lan ugari esker, eta erakunde batzuren laguntzari esker egin da eta alde zuretik guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu.

Aurreko saio guztietan bezalaxe, Epai-mahaiko lanetan hortxe sei lagun arituko zaizkigu: Jexus Mari Mendizabal, Andoni Mendiluze, Antton Kazabon, Rufino Iraola, Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi" eta Markel Arizmendi. Eta Idazkari lanetan, ohi den bezala, Arantxa Arruti eta Joxe Mari Altuna.

Bertsolariek gaur egin behar duten lana: Agur bana, baina hau ez da puntuagarri izango, baina bai ondorengo lanak: Zortziko Haundian ofiziotan, launa bertso; bukaera emanda bertso bana Zortziko Haundian; haserako puntua emanda beste bana Zortziko Txikian; ofiziotan, berriz ere, Hamarreko Haundian, hiruna bertso; Zortziko Txikian, launa bertso ofiziotan; eta azkenik Kartzelako Gaia emanda hiruna bertso bakarka. Beraz, hamaseina bertso izango dira puntuagarri.

Gaur kantatuko duten bertsolariak tokatu zaien ordenean: **Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Martin Rezabal "Olaso",**

**Jon Sarasua, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Perez "Euskitze" eta Iñaki Murua.**

Bikoteak era honetan egingo dira: Zortziko Haundian: 1-2, 3-4, 5-6, 7-8. Hamarreko Haundian: 2-3, 4-1, 6-7, 8-5. Eta Zortziko Txikian: 1-3, 2-4, 5-7, 6-8".

Baina bertsolariak lanean jarri aurretik, Laxarok, minutu bateko isilunea eskatu zuen, bezperan 101 urterekin hil zitzaigun Ataungo Joxe Migel Barandiaran ospetsuaren oroimenez. Ondoren, saioari hasera emari ziztaion zortzi bertsolarien agurrekin:

**AGURRAK**

*Doinua: 8ko Haundia*

*Neurria: Galderatxo bat egin didazu*

*Lizaso*                      Ongi etorri, besarkada bat  
gure entzule maiteak,  
merezi baina askoz gehiago  
jarraitzen digu jendeak.  
Telebista ta irratiz hainbat,  
hemen bazterrak beteak,  
holakoetan poz ematen du (bis)  
bertsolari izateak.

*Doinua: Zer da gaur Donostian*

*Neurria: 10eko Txikia*

*Mendizabal*                Aurtengo txapelketak  
gaur du bukaera,  
zortzi gerlari gatoz  
hemengo frentera,  
koadrilako zaharrena  
neroni gainera.  
Faboritoak gutxi  
ta denok aukera,  
pronostikoak hausten  
saiatuko gera. (bis)



*Sebastian Lizaso lehen agurra kantatzen. Mendizabal, "Olaso", Jon Sarasua, Egaña, Peñagarikano, "Euskitze" eta Murua beren txandaren zai.*

*Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Olaso*                      Tristura artean azaldu zaigu  
bertsoen egun zabala;  
gaurkoan Martin ez dator harro  
baizik zeharo apala,  
lehenen, bigarren, egin dezake,  
zazpi, zortzigarren hala.  
Nik iritziak eskeini ditut  
gerta daiteken bezala,  
gero ez esan Aiarrarena  
sorpresa bat izan dala. (bis)

*Doinua: Pozaktxoratzen hementxen dago*  
*Neurria: Berzia*

*Sarasua*                      Woody Allenek zion bezela:  
"Ene! Hau da buitre pila."  
Platon haundiak zion bezela:  
"Famadunak fama bila."  
Lazkanok esan zuen bezela:  
"Bertsoa ez dago hila."  
Pitagorasek zion bezela:  
"Kuadratu nahi borobila."  
Ta beste batek zion bezela:  
"Faltsua sarri umila,"  
eta Van Gohek zion bezela:  
"Nork dio zein dan abila?"  
Eta azken hau neronek diot:  
"Lehen bait lehen buka dadila!"



*Doinua: Arrtsaldeon lendabizitik*  
*Neurria: 8ko Haundia*

*Egaña* Hagola lasai, hasi bagaituk  
helduko dek bukaera  
baina hortara heldu gaituk ta  
murgil gaitezen lanera.  
Entzulea, zuk goza dezazun  
izango dezu aukera  
eta geu ere goza gaitezke  
geranak baldin bagera. (bis)

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Peñagarikano* Euskera gaxo dela esanez  
beti ezin gera jardun,  
zeinek pentsatu bildu zeikenik  
hainbeste mila euskaldun.  
Bertsolariak alkarren etsai  
edota alkarren lagun,  
gauza batean bat gatoz behintzat,  
garbiro aitor dezagun:  
Bertsolaritza irten dadila  
Gipuzkoako txapeldun. (bis)

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Euskitze* Ez da samurra modu honetan  
kantuan hasi beharra,  
burruka oilarrak bezela gatoz,  
ez al da triste samarra?  
Geu zortzi gera, epaileak sei,  
txapela berri z bakarra,  
talde mugatu horretaz kanpo  
doa nere deiadarra:  
Bejondaizula entzule maite,  
zu zera gure indarra. (bis)



- Mendizabal*      Lehenago ere banuen nigan  
maitasunaren babes,  
garai hauetan oparitan  
izaten degu promesa;  
nik eskaria egin nion da  
erantzuna det ezetza,  
goiz triste honek zapuztua dit  
urte guziko ametsa. (bis)
- Lizaso*            Urtero-urtero oparitxo bat  
ekartzen zizun lehenago  
ta aurten ere izango zuen  
bestetan hainbeste gogo.  
Lehen esan dizut, ez dan lekutik  
ateratzerik ez dago.  
Seguru berak sufrituko du  
haurtxoak baino gehiago. (bis)
- Mendizabal*      Gure Olentzero minez badago  
neroni're nago minez,  
garai hauetan behar nuen  
pozez eta atseginez.  
Esku hutsikan utzi nau eta  
hori zergatik jakin ez,  
esplikazio txiki bat behintzat  
eman behar zidan gutxinez. (bis)
- Lizaso*            Hori neronek emango dizut  
Olentzeron izenean,  
kostata zerbait ekarri ohi du  
beti edo gehienez,  
aurten ezerrez, eta zuk pena  
badaukazu barrenean;  
opari bat ekarriko dizut  
dirurik daukadanean. (bis)

*Mendizabal* Zure kontuak ez naute poztan  
eta aurkitzen nai z larri,  
nik opariak jasotze hori  
ezagutu bait dut sarri.  
Orain badakit nik zer egin hor  
nahiz Olentzero ez etorri:  
Beste karta bat egingo diet  
Meltxor eta Baltasari. (bis)

*Lizaso* Erregeari alperrik zert an  
bidali hainbeste mezu...  
Hara semea, oraindik ere  
ezjakinean zaude zu,  
gaztea zera ta Olentzero  
zein dan ere ez dakizu,  
nor dan seguru jakindakoan,  
barkatuko al diozu? (bis)

*Mendizabal* Barkatzen diot bihotz bihotzez  
ta egiten dut aitormen:  
Nere has arrea bukatuko da  
berandu izan baino lehen.  
Hutsune honek gauza haundi bat  
irakatsi dit bederen,  
gauza honekin ikasi bait dut  
eukitzea zein ona den. (bis)

LIZASO: 26 - 26,5 - 29 - 27,5 - 29,5 - 29,5 = 168

MENDIZABAL: 26,5 - 26 - 29 - 27 - 27,5 - 29 = 165

## Martin Rezabal "Olaso" - Jon Sarasua

*GAI:* Zuk, Olaso, baduzi zure etxebizitzaz aparte, beste etxe bat ere hutsik. Ikustaldi bat egitera joan zara zeure etxe horretara eta barnuan Sarasua, gazte hau, aukitu duzu.

*Doinua: Arratsaldeon lendabizitik*

*Olaso*                      Gaztetarikan lanean hasi  
ta dirua irabazi,  
bi etxe txiki neureak egin  
ta hirugarrena kasi.  
Hutsik zegon hoi aspalditxoan,  
nola ez nuan ikusi?  
Zer egiten dek aizak, gaztea,  
besten etxean nagusi? (bis)

*Sarasua*                    Ikusirikan zure etxea  
guztia hautsez beteta,  
okupatzea pentsatu dugu,  
hartako izanik beta,  
gazte pila bat gauden artean  
inun ere ezin gordeta,  
Donostiako aberatsekin  
kokoteraino gaude-ta. (bis)

*Olaso*                      Konprenditzen det gaztetxo honek  
esaten duena dena,  
aberats hoiak dana berentzat  
pobreantzat rejimena.  
Ustekabean etxera sartu  
gerta laiteke krimena  
ta sartzerako gutxin gutxinez  
eskatu ezak baimena. (bis)

- Sarasua*           Gazteak ere etxe batean  
beharko degu mantendu,  
aizu, ez zaidazu aitona maite  
ahotikan hitza kendu.  
Berai baimena eskatutzeko  
agureak esaten du,  
komisarian egongo ginan  
eskatu izan bagendu. (bis)
- Olaso*             Nere lagunak esan duenai  
hartu ondoren arreta,  
minberatu naiz nere etxean  
ikusitako ondoren porreta.  
Ate guztiak txikitu eta  
siloiak berriz erreta,  
ehun mila peza behar dizkiat  
nik hileroko errenta. (bis)
- Sarasua*           Gure zahar hauek jartzen digute  
hainbest atarramentu...  
Ura, zaborra ta argindarra  
joango dira gure kontu  
baina errentak errespetatzen  
ez gabilta oso santu,  
etxea sano uzten badegu  
egon zaitezke kontentu. (bis)
- Olaso*             Holakorikan gerta zeikenik  
ez nun pentsatzen sekula,  
negar malkoak erortzen zaizkit  
ezin ditut disimula,  
gizon zintzoai egin al zaio  
inoiz orain hainbat burla?  
Gelditu gera geure gauzekin  
agindutzen ez degula. (bis)



*"Olaso" adi, Jon Sarasua kantari.*

*Sarasua* Gu berriz gaude etxerik eta  
dirurik ez daukagula  
eta soberan daduk anari  
egin dakioke burla.  
Agur ta erdi aitona maite  
eta ez ahaztu sekula  
gure ahulean gazteok ere  
gure armak baitugula. (bis)

OLASO: 27,5 - 28 - 28 - 26,5 - 28 - 29 = 167

SARASUA: 27,5 - 27 - 27 - 28,5 - 29 - 28,5 = 167,5

## **Andoni Egaña - Anjel Mari Peñagarikano**

*GAI:* Zuek herriko alkatea eta herritarra zaituztegu. Andoni Egaña alkatea eta Peñagarikano herritarra. Herriko lekuri politenean txalet bat egin nahi zenuke zuek, Peñagarikano. Aurreko alkateak baimena eman zizun baina oraingoak, Andonik, ukatu egin dizu.

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

*Egaña* Aberats batek askotan dauzka  
bai bula eta bai dispentsa,  
orain artean bai etza zendun  
orain bihurtu ezetza,  
ezkerrekoek hartua degu  
herri hontan alkatetza,  
akabo zure txantxulloa ta  
akabo zure ametsa. (bis)

*Peñagarikano* Orain zergatik esaten dezu  
ezkerreko a zerala?  
Jaun da andreok, zeinek ulertu  
hemen dagon martingala,  
harek utzi ta honek ukatu,  
gauza gertatu da hala.  
Nik uste nuen P.N.V. ta  
"S.O.E." lagunak zirala. (bis)



*Egaña* Politikaren alde hortatik  
dabil horrela horrela,  
"S.O.E."-korikan ez dago hemen,  
ez zaite izan txepela.  
Txaleta tranpan egin nahi zendun  
Bertin Osbornek bezela,  
uste al dezu oraindik ere  
Francon garaitan gaudela? (bis)

*Peñagarikano* Koadrila hau ez degu behintzat  
orain batere bapoa,  
ni "mekaguenka" hasi naiz eta  
gaur jaurti dizut takoa;  
barkatu baina zu bai zerala  
"txiripitiflautikoa",  
gaur zuk zergatik galerazi  
lehen aprobaturakoa? (bis)

*Egaña* Patrikak bero dituen harek  
buruan hamaika haize,  
aberats hori jarria dago  
bere txaletaren gose.  
Hitz raro eta "mekauenekin"  
arituagatik luze,  
esku hutsikan joango zera  
ailegatu bezelaxe. (bis)

*Peñagarikano* Udaletxean somatzen degu  
makina bat astakirten,  
esku hutsik joan beharko dedala  
esanez ez zaitez irten.  
Don Antoniok neri jartzen dit  
gaur odola irakiten.  
Nik permisoa ordaindu nuen  
utzi zaidazu egiten. (bis)

*Egaña* Ez zendun izan terrenoaren  
egokieran arreta  
eta denuntziz beterik daukat  
mahai izkinean karpeta.  
Zeure diruaz neroni ere  
egin zaidazu txaleta  
eta orduan alda ditzaket  
partidua ta txaketa. (bis)

*Peñagarikano* P.N.V.-ko ta sozialistak  
daude betiko kazuan,  
bertsolari bat etorri eta  
honek Iotu du lazuan.  
Orain txaleta ezin dut egin  
eskatu nuen auzuan,  
madrileño bat etorri balitz  
baietz esango al zuan? (bis)

EGAÑA: 29,5 - 29 - 30 - 29 - 29,5 - 29,5 = 176,5  
PEÑAGARIKANO: 26 - 28 - 27 - 28 - 29 - 29,5 = 167,5

## Xabier Euskitze - Iñaki Murua

*GAA:* Euskitze, ez orden, ez arau eta ez muga, zeure erara bizi zara. Iñaki Murua, beriz, bizitza arautu eta ordenatu baten zale zaitugu.

*Doinua:* *Balentin Berriotxoarena*

*Euskitze*           Lagun Iñaki, zu bai zerala  
ordenadore galanta,  
entxufe eta pilak ez dakit  
nola ez zaizkizun falta.  
Ni berriz beti lasai bizi naiz  
ta libertade galanta...  
Bizitza lasai hartu ezazu  
lau egun zikin dira-ta. (bis)

*Murua*             Lana eginaz daukat bizia  
behar bezela betea  
ta gustatzen zait bere garaian  
txintxo gauzak egitea.  
Beti aldrebes zabiltz laguna,  
hara Euskitze maitea,  
anarkiatik ezer ez dator,  
arren zuzendu zaitea. (bis)

*Euskitze*           Amatiñoren gutun txiki bat  
gaur bertan jaso dedanez  
"Aizak, Xabier, telebistatik  
kanpora hoa" esanez,  
pentsatzen zuen larri nengola,  
ni berriz umore onez.  
Enpleoa igual kenduko dit bai  
baina askatasuna ez. (bis)

*Murua* Zeure soldata kentzen badizu  
askatasuna akabo,  
behin betirako izango zera  
etsipenaren esklabo.  
Amatiño ere zure jokeraz  
ia buruz gáindik dago,  
langabezira botako zaitu  
zeuk uste baino lehenago. (bis)

*Euskitze* Lehenago ere pasa izan zait  
horrelako zenbait kasu,  
enpresa haundi txukun denetan  
egiten det enbarazu.  
Diruz ederki ta orduz fijo  
lotuta bizi zera zu,  
ni askoz ere hobeto nabil  
pobre baina zoriotsu. (bis)

*Murua* Ordena gabe ni berriz ezin  
sosegatu ta alaitu,  
zu bezelako gizon eskas ek  
sarritan naute gogaitu.  
Zikinak eta alperkeriak  
aurki irentsiko zaitu  
ta azkenean kale ertzean  
limosna eske amaitu. (bis)

*Euskitze* Limosna eske ibiltzea ez da  
izango nere damua,  
gaur bertan ere ez zait gustatzen  
daukagun egitasmua,  
hainbat juradu ta gaijartzaile  
hau ez da kontu sanua,  
Laxaro jaunari agur esanda  
ni bazkaltzera banua. (bis)

*Murua*

Lehen esan dizut jokera horrek  
gauz onik ez dakarrela,  
zuzendu zaitez, txintxo jokatu,  
ez zaiz ibili horrela  
ta bazkaltzera hau dana utzita  
berehala zoazela...  
Ordena ezaz galduko dezu  
Gipuzkoako txapela. (bis)

EUSKITZE:  $24,5 - 23,5 - 27 - 25,5 - 27 - 28,5 = 156$

MURUA:  $27 - 26 - 27,5 - 27 - 29,5 - 29,5 = 166,5$

## BAKARKAKO LANA

- Bukaera emanda Zortziko Haundian bertsoa osatu.
- Puntua emanda Zortziko Txikian bertsoa osatu.

### Sebastian Lizaso

*Doinua: Galderatxo bat egin didazu*

*Bukaera*                      Holako izar dizdiratsuak  
zergatik itzaltzen dira?

Euskaldun denak aurkitzen gera  
Ataun aldera begira,  
Gabon jaietan lutoa heldu  
poza behar zun tokira.  
Jaun zerukoa, galdezka noa  
orain zeruan erdira:  
"Holako izar dizdiratsuak (bis)  
zergatik itzaltzen dira?"

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*                        Lau ezkondu zerate  
beste lau ezkongai.

Ezkongai dauden hoiek  
aurki ezkondu nahi,  
ezkonduak libre ta  
urrutitik usai,  
hemen gaurko honetan  
inor ez da lasai.

14- 13,5 - 14 14,5 - 16- 15,5 = 87,5



*Sebastian Lizaso*

## Mikel Mendizabal

*Doinua: Galderatxo bat egin didazu*

*Bukaera* Ametsak sarri Europan baina  
etxean denok mokoka.

Larogei eta hamabi gertu  
oraintxen degu epoka,  
esaten zaigu: "Aurrerapenez  
egin dezagun borroka".  
Alde denetan aipatutzen da  
zorioneko Europa,  
ametsak sarri Europan baina (bis)  
etxean denok mokoka.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua* Larogeam abia  
urte sonatua.

Horrela izango dala  
nago antza hartua,  
ipini baldin bada  
dena elkartua,  
ia konpontzen degun  
gure pekatua.

12,5 - 13 - 11,5 - 13 - 13 - 14,5 = 77,5



## Martin Rezabal "Olaso"

*Doinua: Balentin Berriotxoarena*

*Bukaera*           Gure nekeak eta negarrak  
ametsak jan ez ditzaten.

Jolasaldian gaudenik ere  
gaurkoak ez du ematen,  
nere amatxo gaur goizez haxe  
neri jardun zait esaten:  
"Ahal baldin bada zortzigarrengo  
Martin ez hai behintzat erten",  
gure nekeak eta negarrak  
ametsak jan ez ditzaten. (bis)

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*           Belodromoan zaude,  
jo zazu esprina.

Lehen'e dantzatu ditut  
makina't eskina  
baina ezin det hartu  
besteeri gaina,  
pentsa gaur ere egingo  
dedala ahalegina.

13,5 - 15 - 15 - 15,5 - 14,5 - 15 = 88,5

## Jon Sarasua

*Doinua: Hara nun diran mendi maiteak*

*Bukaera*

Besterik gabe gorrotatzeko  
arrazoia al da hori?

Pertsona batzuk badaude gai zki  
ta presoetaz nai z ari,  
ideia baten alde borrokan  
emana dute, erori,  
espiniarrok, azken ean zu en  
espetxeetan erori.  
Besterik gabe gorrotatzeko  
arrazoia al da hori? (bis)

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*

Izango al zinake  
etzi Olentzero?

Ni oparitarako  
ez naiz horren bero  
baina egitan ondo  
pentsatu ezkerok,  
eozar izan ninteke  
hau pasata gero.

11,5- 12- 11,5- 14-14- 14,5 = 77,5

## Andoni Egaña

*Doinua: Bestebateko inularretan*

*Bukaera*            Maitasunaren txalupa ez da  
beti iristen portura.

Bere amaren aholkuekin  
etorri zaigu kantura,  
Martin Olasok izaten ditu  
majina bat abentura,  
gehienek ezetz esan diote  
alturik ezan kontura.  
Maitasunaren txalupa ez da  
beti iristen portura.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Gaztainak txipli-txapla,  
presto danbolina.

Nere pen a bakarra  
probatu ezina,  
gorputza zaindutzeko  
egin nuan zina,  
bestela izaten det  
tripetako mina.

## Anjel Mari Peñagarikano

*Doinua: Hara nun diran mendi maiteak*

*Bukaera*                    Atzo erraldoi, gaur mila zati,  
   agur Sobiet Batasuna.

   Garai batean komunismoei  
   bazitzaion maitasuna,  
   Gorbachov jauna ere hor dabil  
   zer esan eta zer suma,  
   izugarria izan behar zuen  
   lehen zuen erresuma,  
   atzo erraldoi, gaur mila zati,  
   agur Sobiet Batasuna. (bis)

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*                    Jarriko bazintuzte  
   Donostin alkate...

   Lehen Egaña genun  
   nahiko alkahuete,  
   orain Odon degula  
   ohartzen zerate,  
   baina holakoek ez dit  
   neri inportik bat'e.

14 -13 -13 - 13,5 - 14,5 - 14,5 =82,5

## **Xabier Euskitze**

*Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

*Bukaera*            Zein eder zaren "egia" hitza  
beti berri, beti zaharra.

Gezurra motza dela diote  
ta ez da arrazoi txarra,  
bide hortatik maiz heltzen zaigu  
begietara negarra,  
egi garbiak ere usteldu  
eta kutsatu beharra,  
zein eder zaren "egia" hitza  
beti berri, beti zaharra.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Hamar urte badira  
Xalbador hil zela.

Nere barruak ez du  
ahaztuko bela,  
berak badaki beti  
hemen dagoela,  
beti hura daramat  
eredu bezela.

14,5- 13- 14- 14- 15- 15 = 85,5



*Xabier "Euskitze" kantatzen ari da. Muruak adi entzuteaz gain lekua gordetzen dio.*

## Iñaki Murua

*Doinua: Beste bateko inularretan*

*Bukaera*            Denborarekin erortzen dira  
hosto iharrak bezala.

Jaiokeratik goxo ta bigun  
gu tratatzen eginahala,  
guraso maite bihotzekoak  
musukatuaz azala,  
bainan urteen errek atxora  
ohartzen naitz doazala,  
denborarekin erortzen dira  
hosto iharrak bezala.

*Doinua: Xarmangarria zera*

*Puntua*            Kontxako barandilan  
aurrera begira,

mutil berde batzuek  
a zer ikusmira!  
Lehenen iztarretara  
ta gero gerrira,  
Peña eta Egaña  
hala egoten dira.

## HAMARREKO HAUNDIAN HIRUNA BERTSO

### Mikel Mendizabal - Martin Rezabal "Olaso"

*GAI:* Zuek ama-alabak zarete. Mikel ama eta Olaso bere alaba. Ama urtetan sartuadugu eta alaba sendagile ospetsua. Alabak, hemen baino premia gehiago dagola eta, Afrikara joan nahi omen du gaixoak sendatzera.

*Doinua:* Aita izena kanta beharrak

*Mendizabal*      Aizan, alaba, berri gogor bat  
oraintxen dinat jakina.  
Orain artean asko kostata  
haiz hi mediku egina,  
ama zahartu den ta gorputzera  
etorri zaion ezina;  
hik agertu den Afrika aldera  
orain juateko grina.  
Zergatik hoa horren urruti  
nere bihotzeko Martina? (bis)

*Olaso*              Orain artean elkarren ondon  
ibiliak gera bapo.  
Nere am atxo, osasunetik  
aurkitutzen zera flako,  
ta ez tristetu ni atzerrira  
bakarrik nijoalako,  
nere ofizio horretan dauzk at  
gerorako hainbat joko,  
hemen bakarra salba nezake  
eta Afrika aldean asko. (bis)



*Mendizabal*      Arrazoi horri buruz pentsatzen  
egona negon luzaro,  
nere osasunak, nere gorputzak,  
asko ezin din igaro...  
Oraindik ere haruntz joateko  
pentsamentuan al hago?  
Han premi asko baldin bazegon  
nik ez dinat gutxiago.  
Ama bakarra ez ote den, ba,  
hango asko baino lehenago? (bis)

*Olaso*              Amazalena neroni nitzan  
ez nitzan noski izuna,  
ofizioak bat eta beste  
ondoren dakarkin suma.  
Ama, ez zaite arren gaizkitu  
alaba urruti juna,  
nere langintza bestela gerta  
daiteke oso lizuna,  
meritu batzuk eginda daukat  
geroko etorkizuna. (bis)

*Mendizabal*      Merituetan etorkizuna  
egin hunan gerorako.  
Iritzi garbiz azaldu haiz ta  
hala onartu beharko.  
Egoista bat ezin nai izan  
hi haruntza hualako,  
hik begirada etxetik kanpo  
ipini dun haruntzako  
bainan berandu izan zinteken  
hi berriz etortzerako. (bis)

*Olaso*                    Nere amatxo lehen sasoiko  
bazendu an nahiko kemen,  
elkarren ondon izaten ginan  
gau eta egun gehienen.  
Nik haruntz jun ber eta hoinbestez  
amatxo esate'izut amen  
baina orandik alabatxoak  
senda zaitzake nabarmen,  
kalmante batzuk emango'izkizut  
haruntza joan baino lehen. (bis)

MENDIZABAL: 21,5 - 21 - 21 - 22,5 - 21,5 - 22 = 129,5  
OLASO: 18- 19- 21 - 20,5 - 21 - 22 = 121,5

## **Jon Sarasua - Sebastian Lizaso**

*GAI:* Zuek biok bizitza honetan hain premiazkoa den ikusmena falta duzue, itsuak zarete. Sarasuajaiotzez itsu dena, Sebastian, berriz, orain gutxi istripu batean itsu gelditu da. Gaur Sarasua klinikara etorri zaizu bisitara.

*Doinua: Sentimentua sartu zitidan*

*Sarasua*                    Itsua eta ikusmendun bat  
ezin litezke konpara,  
bat zoriontsu bizi da eta  
zerbait gertatzen da, hara:  
Zu Sebastian bizitzarako  
nahi zintuzket gaur prepara,  
mundu batetik irten duzu ta  
bestera etorri zara.  
Lagun maitea, ongi etorri  
itsuen familiara. (bis)

*Lizaso*                    Lehenago ere banedukan nik  
behar hainbeste fameli,  
okerrena da itsutu naiz ta  
bakarrik ezin ibili.  
Zuk daduzkazun sekreto hoiek  
behar ditut erabili,  
benetan diot, oraindik ere  
jasan ezinda nago ni.  
Zu piztu gabe zerate ta ni  
piztu ta bertan itzali. (bis)

*Sarasua*                    Ni izango naiz aurrerantzean,  
Sebastian, zure eredu  
eta zurekin ibiliko naiz  
uda, udazken ta negu.  
Etsipenean ez zaite jausi,  
egiten dizut erregu.  
Kolore eta argietara  
betaturikan gaude gu,  
sentimentua ta maitasuna  
hobeto ikusten degu. (bis)

*Lizaso*                    Kezka bat daukat: etsipenean  
ez ote naizen erreko...  
Ez dakit ziur hil izan banitz  
ez ote nuen hobeko.  
Zure bisita nahiz eta ez dan  
gaur neret zako kalteko,  
esan didazu bizitzan zehar  
zuk ni nazula gordeko  
baina itsu bat nolatan hartu  
neretzat itsuaurreko? (bis)

*Sarasua*            Itsuaurreko izango naiz, bai,  
nola noa esatera:  
Gu aterako gera kalera  
dakiguna ematera.  
Bertsotara're ederki asko  
zindezke berriz at era,  
gauza berriak preparatzeko  
ere badago aukera,  
ikuskitun bat egingo degu  
Kaxianokin batera. (bis)

*Lizaso*            Zuk diozunez, bete liteke  
ez dakit zenbat kutizi.  
Nahi nuke baina ez det sinisten  
ta, laguna, erakutsi.  
Bizitzan nitun eskema denak  
ezbeharrak dizkit hautsi,  
emaztea ta bi haur daduzkat  
beren aurpegi ta guzi.  
Ikutu eta senti ditzaket,  
zergatik ezin ikusi? (bis)

SARASUA: 25 - 23 - 25 - 24,5 - 23,5 - 23 = 144  
LIZASO: 22 - 22,5 - 22 - 23 - 23,5 - 23,5 = 136,5

## **Anjel Mari Peñagarikano - Xabier Euskitze**

*GAI:* Aita-semeak zarete zuek biok. Peñagarikano aita eta Euskitze hogeituro urteko semea. Aitak bere garaiari, aspalditxo, Euskalerritik alde egin behar izan zuen. Semea Venezuelan jaio eta baita hazi ere, bertan egin da. Orain aitak Euskal Herrira itzuli nahi luke baina semeak ez.

*Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke*

*Peñagarikano*      Gazte denboran gauza askotan  
nola naizen ibilia,  
Francon garaiari han bagenuen  
gorroto ta errabia.  
Hau utzi nuen neure kuadrila  
eta neure familia.  
Hoitabost urte pasa ondoren  
haruntz nahi nuke abia,  
txoritxo batek beti maite du  
bera sortu zana kabia. (bis)

*Euskitze*              Aita maitea, ez zaitez izan  
kaxkarina ta txepela.  
Jakirik azken hogeituro urtetan  
etxetik kanpo zaudela.  
Bizimoduak baditu hainbat  
arau eta erregela.  
Nik ere neure kabi maitea  
badaukat bai zuek bezela,  
zure kabia hura da baina  
nerea Venezuela. (bis)

*Peñagarikano*      Mende bat bezin luze egin zait  
Venezuelan urtea!  
Zure arrazoi a konprenditzen det  
ene semetxo maitea.  
Probatu ez dunak ere ez daki  
zer dan hola egotea.  
Oraindik ama xaharra bizi da  
samintasunez betea,  
orain nahi dedan gauz bakarra da  
hari musu ematea. (bis)

*Euskitze*            Amaz oroitzuz ezin atera  
barruan daukazun harrik,  
ni zure azken arrazoi horrek  
nauka harritu xamarrik.  
Zeure kabia maitea dezu,  
ez dago esan beharrik,  
baina ni penaz beteko naute  
hainbat oroimen pozgarrik.  
Hara joango nintzake baina  
oporretara bakarrik. (bis)

*Peñagarikano*      Une hauetan ez noa behintzat  
ni malkoak isurtzera  
ta ez nuke nahi derrigorrean  
semetxo bat ekartzera.  
Nik esan dizut joan nahi dedala  
nere amatxoren etxera..  
Oporretara joan nahi zenduke  
beste askoren antzera,  
hainbeste gustatuko zaizu ta  
bertan geratuko zera. (bis)



*Angel Mari Peñagarikano eta Xabier "Euskitze"*

*Euskitze*

Aita maitea, zeure herriak  
itsuturik bizi zera,  
oroimen asko bait datozkizu  
bihotz xahar horren ertzera.  
Baina neuk ere ez ote daukat  
zure herrimin berbera?  
Zoaz bertara ta bizi zaitetz  
amatxorekin batera  
ta urtean behin zatozte biok  
neri musu ematera. (bis)

PEÑAGARIKANO: 20,5 - 22 - 23 - 24 - 24,5 - 23 = 137

EUSKITZE: 24 - 23 - 23 - 23,5 - 24 - 22,5 = 140

## **Iñaki Murua - Andoni Egaña**

*GAI A*: Zuek aita-alabak zarete. Murua aita eta Egaña 12 urteko alaba. Aita alargundu berria zara zu, Iñaki. Gaur bazkal-ondoan, ezer esan gabe, zure alaba plater garbitzen hasi da.

*Doinua*: Aita izena kanta beharrak

*Murua*

Ohartu zera gure etxean  
biok bakarrik gaudena,  
hamabi urte bainan halere  
heldua dezu barrena,  
lehenbizi mahaia txukundu dezu  
platerak garbi hurrena,  
alabatxoa zeurekin dezu  
zure amatxoren sena,  
poz horri esker ahaztuko det nik  
hura galduaren pena. (bis)



*Egaña*                   Platera hotsa aldamenetik  
bazkalondo an entzuna,  
aita galdezka bildu zatzaizkit  
horra nere erantzuna:  
Hamabi urte izanagatik  
badaukat nere zentzuna,  
ama zanaren imajina naiz  
eta bere oihartzuna,  
ahal dedan eran bete nahi nuke  
hark utzitako hutsuna. (bis)

*Murua*                   Hark utzitako hutsuna hura  
hasi ziteken haunditzen,  
haren goxoa, begirakuna,  
inun ez ditut aurkitzen  
baina alaba, fin ari zera  
gure ontziak garbitzen.  
Lagundu asmoz, hau pentsatuaz  
aulkiti ari naiz jeikitzen:  
Zu holakoa ez bazinake  
ez neukan errez bizitzen. (bis)

*Egaña*                   Txandarra neukan garbia eta  
gainetik jarri mantala,  
bizimoduai xuxen eustea  
degu orain zerbitzala.  
Nere ondoan hemen naukazu  
horixe da printzipala,  
nere helburua hiru hitzetan  
hor dijoa nola hala:  
Nere indarrak zure malkoak  
estalarazi ditzala. (bis),

*Murua*                    Bihotza daukat minez ximela,  
                                  aurpegian gailen pena,  
                                  eskerrak zuri, malko hezeak  
                                  xukatzen ari naizena.  
                                  Zuri begira alaitasunez  
                                  bete da nere barrena,  
                                  lagun zaidazu urrats ematen  
                                  mundu zail hontan barrena,  
                                  hori litzake zure amarentzat  
                                  omenaldirik onena. (bis)

*Egaña*                    Ustegabeko istripu baten  
                                  ama joan urrutira  
                                  baina bizitzak lehengoan darrai  
                                  ta horreinbestean, tira..  
                                  Oraindik ere ez da itzali  
                                  familiaren ditzira,  
                                  zeru goitikan gure amatxo  
                                  hortxe daukagu begira,  
                                  ontzik garbitzen ikusten nau ta  
                                  iriparrezka ari da. (bis)

MURUA: 21 -22 - 21 - 23 - 23,5 - 22,5 = 133

EGAÑA: 24 - 23 - 22,5 - 23,5 - 24 - 22,5 = 139,5

## ZORTZIKO TXIKIAN LAUNA BERTSO

### Sebastian Lizaso - Martin Rezabal "Olaso"

*GAA:* Aita-semeak zarete zuek, aita Sebastian, hoge urteko semea berriz Olaso. Biok elkarrekin bizi zarete. Aitak badu maitale bat noizean behin etxera etorri ohi dena. Gaur aita oharatu da semeak maitaleari ez diola begirik kentzen.

*Doinua: Kantatzera nijo*

*Lizaso*                Seme, hitzegin nahi det  
                              nik orain zurekin,  
                              ikusi bait nauzu ni  
                              maitalearekin.  
                              Nunbait inbiriz zaude  
                              ta sufritu ezin.  
                              Hiru lau izan nitun  
                              hoge urterekin. (bis)

*Olaso*                 Aita zaharrak dauk ana  
                              aurpegi gehiegi.  
                              Zer maitale polita,  
                              gorputz ta aurpegi!  
                              Ni berari segika  
                              mingain eta begi.  
                              Semeak badaduka  
                              aitak aina premi. (bis)

*Lizaso*               Premia duela ta  
                              besteren aitzaki,  
                              erdi lotsatia da  
                              hala erabaki.  
                              Honen berri oraindik  
                              amatxok ez daki,  
                              mingaina ta eskuak  
                              geldirik eduki. (bis)

*Olaso* Zelebrea da hemen  
jari dan ez-baita,  
honek emakumeak  
beti ditu maita,  
ni berriz lotsatia  
naiz ta hala nahita,  
Lizaso ez det izango  
egitazko aita. (bis)

*Lizaso* Nahiz kanpoan ibili  
zezen baten pare,  
etxeko lanak beti  
kunplitu dotore.  
Zuk ez baldin badezu  
nahi aina balore,  
nik bilatu beharko  
zuretzako ere. (bis)

*Olaso* Honen arrazoiekin  
ni izarditan blai!  
Semea bera ere  
hortako bait da gai.  
Aita, ez naiz egongo  
horretan zure zai.  
Zuk usatutakorik  
semeak ez du nahi. (bis)

*Lizaso* Eskeintza ezeztu dit,  
ezin galerazi,  
bestek erabiliak  
ez du egin grazi.  
Semea, jolasean  
nik behar det hasi.  
Begiratu zazu ta  
lanean ikasi. (bis)

*Olaso*                    Aita semean alden  
nola dan lasaia,  
urrutitik hartzen du  
neskatxen usaia,  
lotsagarri honek parrez  
daduka herria.  
Hoi neretzat utzi ta  
bilatu berria. (bis)

LIZASO: 26 - 26,5 - 25,5 - 27 - 28,5 - 30 = 163,5  
OLASO: 27 - 28 - 26,5 - 28,5 - 28 - 30 = 168

## **Mikel Mendizabal - Jon Sarasua**

*GAA:* Zuek biok Gipuzkoako txapelketan parte hartu duzuen bi bertsolari zarete. Zu, Mendizabal, epaimahaiko batengana oilasko pare hartuta joan zara. Han, noik irekiko atea eta, Sarasuak ireki dizu, alajaina!

*Doinua: Nere senarrarekin*

*Mendizabal*            Txapelketako biok  
eman gendun hitza  
eta nik epaimahaia  
nahi nuen zerbitza.  
Atea iriki ta  
hau da zorigaitza!  
Aizazu, Sarasua,  
hemen zer zabilta? (bis)

*Sarasua*                    Rufinoren lurretan  
dabil txitxarea  
baina ni ere ez naiz  
mugitu gabea,  
Rufinon sobornoak  
badauka jabea  
eta gorde ezazu  
oilasko pare. (bis)

*Mendizabal* Lehengoan Ru finokin  
nuen nik hitzegin  
eta errejimena  
nahi duela egin,  
hargatik zerbitzatz  
saia naiz ahalegin,  
belodromora sano  
gaur etorri zedin. (bis)

*Sarasua* Juradutan badaude  
mila gizon mota  
ta zuk batzuk hartzea  
neri ez zait inporta.  
Izazpirekin beraz  
oilaskuak bota,  
Bizargorrikin ere  
egonda nago ta. (bis)

*Mendizabal* Biok txapelketako  
etsai eta lagun  
ta kanpoko etxean  
eginak ezagun.  
Galdetu nahi nizuke  
eta zuk erant zun:  
Jakin nahi nuke zuk zer  
ekarri diezun. (bis)

*Sarasua* Opariz jarri naiz ni  
bi hoi en mirabe,  
zer ekarri diedan  
ez esanda hobe...  
Hiru faboritoak  
bai daudela trebe!  
Sobornatzen dituzte  
ezer eman gabe. (bis)

*Mendizabal*      Hiru faboritoek  
hainbat kategori,  
hortan jendea zaigu  
kontuan erori.  
Sobornotikan hoiek  
bait dabilta lori,  
guk ere badaukagu  
eskubide hori. (bis)

*Sarasua*            Sobornatzera joanda  
a ze disgustoak!  
Ia finkatuta zauden  
bi hoien gustoak.  
Epaimahaikoak dira  
eoskor askoak  
eta jango ditugu  
biok oilaskoak. (bis)

MENDIZABAL: 27,5 - 27 - 26,5 - 28 - 27,5 - 30,5 = 167  
SARASUA: 29 - 28 - 27,5 - 30 - 29 - 30,5 = 174



*Mikel Mendizabal eta Jon Sarasua*



## Andoni Egaña - Xabier Euskitze

*GAI:* Zuek biok kartzeleroa eta preso a zaituztegu. Egaña preso a eta Euskitze kartzeleroa. Kartzelako zeldan Montekristoa erretzen ari zen Egaña eta bere Celtas paketea eskuan duela hor etorri zaio Euskitze kartzeleroa eta sua eskatu.

*Doinua: Kantatzera nioa*

*Egaña*                    Iriparre maltzur bat  
egin dit lehenbizi,  
gero sua eskatu  
neri bizi-bizi.  
Urtean zehar badu  
hamaika malezi,  
sua emateik ere  
ez luke merezi. (bis)

*Euskitze*                Ni beti ibiltzen nauk  
hire inbiritan,  
hik puruak ez dituk  
erretzen gutxitan  
eta Montekristoak  
zortitik zazpitan.  
Noiz kristo etorri zaik  
Lizaso bisitan? (bis)

*Egaña*                    Lizasoren lagun a  
naizela nabari,  
hari esker badauzkat  
puruak ugari.  
Hik begiratzen diok  
heure nominari,  
pururik ez badauk ak  
izorratu hadi. (bis)

*Euskitze* Preso hau da erabat  
zerri ta urdea,  
kartzelero xahar honi  
ahotik lerdea.  
Trukean premio bat  
bazeuk at ordea,  
laister pasako diat  
rebista berdea. (bis)

*Egaña* Truke bat proposatu  
bere kara alaiz,  
ezetz esateko're  
orain nago garaiz,  
Lizasoren bisita  
edukitzen det maiz,  
Euskitzen aldean  
primeran bizi naiz. (bis)

*Euskitze* Kontu xeibre asko  
gure historian...  
Noiz arte biziko naiz  
besten inbirian?  
Su eske etorri zait  
kartzela erdian.  
Su emango nioke  
baina ipurdian. (bis)

*Egaña* Funtzionaria da ta  
ez du lagunikan,  
honek ez du pasatzen  
une lagunikan.  
Ez det pentsatzen suerte  
ona dezunikan,  
ez nuke nahi holako  
askatasunikan. (bis)

*Euskitze*                      Kartzela zikin hontan  
bera da nagusi,  
hemen dabil Cubako  
puru eta guzi,  
holako presorikan  
ez det maiz ikusi,  
Amedo bera ere  
ez da hola bizi. (bis)

EGAÑA: 28 - 26 - 28 - 28 - 29 - 30 = 169  
EUSKITZE: 28,5 - 28 - 31 - 30 - 29,5 - 30,5 = 177,5

## **Anjel Mari Peñagarikano - Iñaki Murua**

*GAI:* Peñagarikano, amona xahar bat zaitugu eta Murua beriz gazte pasota bat. Amona xaharra badoa Donostiako Abenidatik bastoia lagun duela tirriki-tarraka. Bere ondotik pasota gazte hau pasatu da buruan irrati kaskoa jantzi ta saltoak eginez eta hala esan dizu: "Martxa martxa! A mona!"

*Doinua: Kantatzera nijo*

*Peñagarikano*              Amonak aurpegia  
ez dauka leguna.  
Guztiz aldatu zaigu  
raza euskalduna!  
"Martxa martxa!", esanez  
mutil kaskoduna.  
Zu zera hemendik martxa  
egin behar duna. (bis)

*Murua*                      "Bakmanak" buruan da  
daramat trotea.  
Amona xahar bat aurrez:  
Ez dago betea.  
Nahi nuke atzetikan  
kuerda ematea.  
Pilak falta al zaizu  
amona maitea? (bis)

*Peñagarikano*      Kaletik egin nahi nun  
paseo ta jira  
eta etorri naiz ni  
betiko tokira.  
Gaztea, nere pilei  
al zaude begira?  
Zure pilak'e noizbait  
fundituko dira. (bis)

*Murua*              Zu bai zaudela goitik  
funditzen hasita!  
Gazttxera egizu  
lehen bait lehen bisita  
ta zatoz hondartzara  
aitona utzita,  
bapo pasako dezu  
tanga bat jantzita. (bis)

*Peñagarikano*      Donostian ote da  
mutil hau jaioa?  
Rocka entzunez dago,  
ez da hain iaioa,  
haizea kaskotikan  
gora du jioa.  
Tanga zerorrek jantzi  
txoro arraioa! (bis)

*Murua*              Poltsikutik eskuan  
hartu det kartera,  
handik txina txiki bat  
aurrera atera.  
Goazen dantzalekura  
dantza egitera,  
kalada bat jo eta  
animauko zera. (bis)

*Peñagarikano*      Amona bastoiekin  
hain da gauz normala  
bainan gaztetxo hau gaur  
ez da naturala,  
kaladaren kontuak  
nola edo hala:  
nik kalatutzen dizut  
txoroa zerala. (bis)

*Murua*              Erantzi du boltsoa  
ta bastoia behean,  
atzetikan korrika  
harrapau nahiean,  
hitz ere ez du egiten  
normalidadean,  
nolakoa ote zan  
nere edadean... (bis)

PEÑAGARIKANO: 29 - 29 - 31 - 32 - 30,5 - 31 = 182,5  
MURUA: 25 - 26 - 27,5 - 28 - 28 - 30 = 164,5



## KARTZELAKO LANA

*GAI:* Zu, ilunabarrean amari musu emanda zeure autoan atera zara festara, ordubiak alderako itzuliko zarela esanez. Une honetan goizeko seiak dira. Orintxe gogoratu zara amari emandako hitzaz. Zauden egoeran zaudela, zeu zauden tokitik hiru bertso.

### Sebastian Lizaso

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 14ko Haundia*

Ama, etxetik aterea naiz  
lagunengan a joateko,  
musu bat ere emana dizut  
zu patxaran egoteko.  
Nik banekien nere hitzikan  
ez nuela gaur beteko,  
sasoian nago parrandarako  
gaur ere borondateko,  
festak dira ta aprobe txatu  
nik ez ote det hobeko?  
Neska bat lagun gaur egina det  
suerte a dedalako,  
holako gutxi izaten ditut  
eta saiatu beharko. (bis)

Ama, zurekin oroitua naiz  
unerik goxoenean,  
zure laztana bururatu zait  
beste baten laztanean.  
Neska-mutilak hementxe gaude  
zorioneko planean  
elkarri goxo-goxo helduta,  
elkarren aldamenean.  
Nahiz eta jakin pena dezula,  
konpon leike azkenean.  
Etxeratzean esango dizut  
nik amatxo zuzenean.  
Zedorrek berd in egingo zendun  
gaztea zinadenean. (bis)

Lehen esan dizut, semea dago  
oraintxe sasoiz beteta.  
Maitasuna're ezin eduki  
beti zuretzat gordeta,  
neska honekin nik darabilkit  
bajina bat berriketa.  
Berandu baina iritsiko naiz,  
badut horretan arreta  
eta amatxo ez zaitez jarri  
orain jenioz erreta,  
ni ikustean argituko da  
ilun daukazu kopeta,  
barkaziorik ez det eskatzen,  
ez naiz damutuko eta. (bis)

22-21,5-21 -23,5-24-23 =135

## **Mikel Mendizabal**

*Doinua: Neskazaharrak eta apaizak*  
*Neurria: Berzia*

Afaldu eta atera nintzan  
autoarekin gidari  
eta bertsoak kantari.  
Lagun batzuekin elkartu eta  
gau osoan ibiltari. (bis)  
Ederki asko pasatu degu  
eta hori da nabari.  
Bi begiak dauzkat argi,  
erlojuari begiratu ta  
goizeko seirak ageri,  
une honetan konturatu naiz  
zer esan nion amari. (bis)





Sasoia degu ta umorea  
kalean erakusteko,  
barrua horren eskeko,  
nahiko motibo izana ditut  
alaitu eta pozteko. (bis)  
Bainan gaixoak zer arrazoi du  
nik modu hontan uzteko?  
Hain egoera tristeko,  
zenbat zalantza ta zenbat kezka  
bateko eta besteko...  
Mingainak ez du hitzik izango  
denak adierazteko. (bis)

Lagunak utzi dauden bezela  
eta ahalik azkarrena  
juatea det onena.  
Neuk ere kezka pranko badaukat  
nere bihotzan barren a. (bis)  
Ama gaixoa daukat gogoan  
han zai-zai eongo dena,  
emango al dit barkamena?  
Hutsegite hau estalitzeko  
egingo diot ahal dena  
ta hitz ematen dut, formalagoa  
portatuko naiz hurren a. (bis)

## Martin Rezabal "Olaso"

*Doinua: Mutil koskor bat itsuaurreko*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Musu emanda ilunabarren  
neure kotxean nun monta,  
xelebrea da seme xixtrinak  
orain azaldu dun nota,  
ordubitako joango dala esan  
eta sei ta erdiak jota!  
Arren, amatxo, gaurkoangatik  
ez nazazula gorrota,  
lasai lo egiten jarraitu zazu  
ni oso ondo nago-ta.

Nere amari izana diot  
lehen'e hainbat amodio  
eta gaixoa hor egongo da  
nere zai sutan serio.  
Holako ama batek etxean  
gutxi nola ez dun balio,  
nere zai oihan eskinan esei  
da egoten da propio.  
Lehen'e disgusto franko eman dizut  
eta gaurkoan bat gehio.

Mutil txintxoia eta formala  
izana naiz orain arte  
ta esandako ordurik ere  
azkenen ezin det bete.  
Txapelketa bat sortu zala ta  
nabil aterikan ate,  
dudarik gabe bertsolaritzak  
amatxontzat dakar kalte,  
lagun txarrakin sartu naiz eta  
hauek izorratu naute. (bis)

## Jon Sarasua

*Doinua: Maitasuna da bizi izateko*

*Neurria: Berezia*

Ama, badaukat historitxo bat  
eta zuk ezet z sinetsi.  
Zuk badakizu neska kontuak  
badula zenbait garrantzi,  
zein erabe ta torpea naizen  
orain ezin degu ahantzi,  
baina gaur det hitza hautsi,  
dut formalidade gutxi. (bis)  
Neska batekin nago kotxean  
musukatu ta igurtzi,  
aukera bat behin izango nun da  
pasatzen ezin nun utzi. (bis)

Orain artean nere lagunek  
egiten zidaten burla:  
"Bertsotan nahiko iaioa haiz hi  
baina neskatan ahula."  
Barkatu, ama, gaur tokatu zait  
egokiera mardula,  
ez nun usteko sekula  
parada izango nula. (bis)  
Eta badakit aurreantzean,  
ama, jakingo dezula  
zure betiko mutil txikia  
gizon bihurtu zaizula. (bis)

*Doinua: Sastarretik hasita*

*Neurria: 8ko Txikia*

Luzitzeko egin dut  
makina bat saio,  
hau txapelketa bat da  
eta zer arraio!  
Ama, etxera joatea  
zuk zenduke nahio,  
gaur ez naiz jua eta  
zer egingo zaio...

22,5 - 19,5 - 21,5 - 22 - 24 - 23,5 = 133

## Andoni Egaña

*Doinua: Lehió ertzetik entzun dezaket*

*Neurria: Berezia*

Garai a pasa eta damutu  
hauxe da hau parabol a!  
Festa kontuan beti izan det  
maisutasun ta eskola,  
juizioaren gainetik daukat  
nunbait festaren eskola.  
Nere amatxo pottola  
jakinikan gaur dagola (bis)  
histeriaren azpikaldean  
eta malko dariola,  
barkaziorik ez det merezi  
inundik ere inola. (bis)

Errepidean izotza dago  
ta belardietan ihintza,  
egunsentiak eskeini digu  
lehenengo eguzki printza.  
Ia oraintxe galdua daukat  
nere kotxearen giltza,  
estutu zait bihotz mintza,  
gazteok hola gabiltza. (bis)  
Inundik ere ez det kunplitu  
zuk jarritako baldintza.  
Barka zaidazu, gaztea naiz ta  
holakoa da bizitza. (bis)

Lau ordu luzez igarota da  
zuk jarritako denbora,  
hanka sartzeaz konturatu naiz  
hanka sartuta gerora,  
barkamen eske umil ta txintxo  
etxeratu beharko da,  
hola ez goaz inora,  
ama sustotik sustora. (bis)  
Zure semea bizi da eta  
ez zaitezela aztora,  
oraindik ere sano nago ta  
horreinbestean gustora! (bis)

## Anjel Mari Peñagarikano

*Doinua: Maitasuna da bizi izateko*  
*Neurria: Berezia*

Musu bat eman ta sukaldean  
geratu da isil-isil,  
gizarajoak pentsatuko du:  
"Semea nun ote dabil?"  
Gure etxean gu bost gerade,  
neska bat eta lau mutil.  
Bizitzak zenbat maratil...  
Gaixoa ez dago trankil. (bis)  
Ene amatxok pentsatuko du  
ni istripuz naizela hil,  
ajola haundirik neri ez zait behintzat  
neu ondo baldin banabil. (bis)

Gizarajoak zai egiten du  
minutu eta segundo,  
ez du usteko neu nabilenik  
espero nun bezain ondo,  
ni bezelako parranderorik  
ez bait da sortu egundo,  
nik dantzatzen det fandango,  
rock and rolla eta tango. (bis)  
"Ene Anjel Mari seme bihurria",  
harek ez al du esango?  
Residentzian gaixo egotea  
ez zan hobea izango. (bis)

Etzetik irten ordubitako  
beriz itzultzeko planez,  
orain zertxobait egin behar det  
amatxoren oroimenez.  
Aste guztian ni aspertzen naiz  
neure bertso eta lanez  
ta parrandero naizenez  
nik lo lasai astelehenez, (bis)  
baina nerekin hogeituroko  
neskatxa bat daukadanez,  
nik telefonoz deituko diot  
ondo nagola esanez. (bis)



*Jon Sarasua eta Andoni Egaña. Bukatu dituzte beren lanak.  
Errepassoareen ordua nonbait...*

## Xabier Euskitze

*Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan*  
*Neurria: 10eko Haundia*

Behin lantegian entzun ondoren  
sirenen azken txaloa,  
tarteka behintzat topatzen degu  
parrandarako zuloa.  
Ama gaixoak arrazoi osoz  
bazuen errezeloa,  
berandu samar joango ote den  
seme kaskarin leloa.  
Zer eskubidez gal erazten det  
ama kuttunaren loa? (bis)

Koitadu harek badu semea  
jasateko aina kemen.  
Orain gogoan edukiko nau,  
ez al da nahiko nabarmen?  
"Goiz joango naiz", hitz eman eta  
goizeko seietan hemen...  
Izan behar nuke bere saminaz  
ohartzeko hainbeste sen.  
Sufimentu hortaz ezin ohartu  
neu hortik pasa baino lehen. (bis)

Zeure semea ohean lotan  
izango zenuke pozik  
baina nik ez dut kontutan hartzen  
ingurukoen bihotzik.  
Zure semea kaskarina da  
inuzentea ezezik,  
alajainkoa! nola atera  
hain jokabide narratsik,  
baina kontua ez da ordua  
txintxo ibiltzea baizik. (bis)



*Xabier "Euskitze" azkeneko eginahaletan.*



## Iñaki Murua

*Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket*  
*Neurria: Berezia*

Orain artean txintxo bete det  
beti amaren esana  
bainan gaurkoan parrandarako  
nuen eundoko afana.  
Gogo bizitan ailegatu naiz  
nere koadrilarengana,  
parrandan iluntza dana,  
umorezko harremana. (bis)  
Ta une hontan konturatu naiz  
goizeko seirak dirana,  
dagoeneko nola ote dago  
nere amatxo laztana? (bis)

Parranda biziz iluntza dana  
hor ibili naiz jo ta su,  
batzuei lagun egiten nien  
beste batzuei enbarazu,  
pozikan asko ibilia naiz.  
Ama, aren egin kasu!  
Begietan hainbat lausu,  
ez naiz gauza hauetan maisu. (bis)  
Hamabietan gero arte esanda  
eman dizut hainbat musu,  
gero hau egin ta hala ere  
horrenbeste maite nauzu! (bis)

Lagun artean oso gustora  
ibilia naiz agian,  
dotore nengon, neri begira  
bazegon hainbat begi han.  
Azken erako neskatx lagun bat  
eskuratzeko zorian,  
ilusioen gurdian,  
erdi erotu agian... (bis)  
Ta bitartean ama sufitzen,  
hara gauzak nola dian!  
Monumentu bat egingo dizut  
nere bihotzan erdian. (bis)

21,5-21 - 20,5-21,5-25-22= 131,5

## SAILKAPENA

*Txapelketarako baliagarria zen saioa amaiturik eta epaimahaiak emandako puntuak batu ondoren, hau izan zen sailkapena:*

Sailkapena	Bertsolaria	Puntuak eta
Txapelketa	PEÑAGRICANO	708,5
2	EGAÑA	706,5
3	EUSKITZE	698
4	SARASUA	696
5	LIZASO	690,5
6	MURUA	685,5
7	OLASO	671,5
8	MENDIZABAL	669,5



## SARI BANAKETA ETA AGURRAK

Doinu ekarpen aberatsen a egindako bertsolari ari dagokion saria, Joanito Dorronsoro eta epaimahai aren erabaki z, Mikel Mendizabalek irabazi zuen.

Ondoren, zortzi finalistek, zortzigarrenetik lehenengora saria jaso ahala, agurra kantatu zuten:

*Doinua: Haur eder baten bila*  
*Neurria: 8ko Txikia*

*Mendizabal*      Sariak heldu dira  
azken konpasean,  
puntutan gelditu naiz  
nahikoa atzean.  
Titulu bat jaso det  
doinuen klasean,  
hau ere ez da txarra  
besterik ezean. (bis)

*Doinua: Jesus maitea zan*  
*Neurria: 8ko Txikia*

*Olaso*              Hoinbestez bukatzen da  
bertsoen jolasa,  
barkatu egin badet  
saioa eskasa;  
lasaitu zait burua  
baita ere arnasa,  
eskerrik asko, agur,  
festak ondo pasa.

*Doinua: Zer da gaur Donostian*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Murua*                    Hainbestez bukatu da  
hemengo burruka,  
batzuek parrez, bestek  
malko denak xuka.  
Alperrik aritu naiz  
amari musuka,  
alperrik ein dezue  
aupa eta aupa!  
Peña amona xaharrak  
dauka horren kulpa. (bis)

*Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Lizaso*                    Agur entzule ta Gipuzkua,  
bukatu degu azkenik,  
behar bezela bete ez arren  
agindu diguten lanik.  
Sariak sari, bazkaritara  
juan nahi nuke hemendik,  
gosaria ere kaxkar samarra  
goizean egin bait det nik,  
ez bait nekien estuasunak  
gosea sortzen zuenik. (bis)

*Doinua: Antton eta Maria*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Sarasua*                    Peñak parre egin du  
ta inork ez negar,  
zuengandik gaur jaso  
dugu nahiko indar.  
Failotxo bat egin dut  
nik kartzelan zehar,  
nahiz eta jende batek  
gaizki dezaken har,  
dena serioegi  
ez da hartu behar. (bis)

*Doinua: Nagusi jauna hauxe da lana*  
*Neurria: Berezia*

*Euskitze*            Goia ta behea hurbil zen arren  
askotan bezela gaur hirugarren.  
Peña laguna degu txapeldun,  
ea guztiok txalotzen degun,  
pentsa sekula  
ez ahazteko festa degula.  
Agur, entzule, bejondaizula!

*Doinua: Antton eta Maria*  
*Neurria: 10eko Txikia*

*Egaña*            Gaur ni ez noa triste  
egia esanda,  
gaurko hontan txapeldun  
lagun bat izan da.  
Gaur bai poltsa beroaz  
jo nauela, danba!  
Hire ohorez zi ak,  
Virgo Veneranda!  
Pozik nago txapela  
amonai emanda. (bis)

Imanol Lazkanok, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko  
Lehendakariak, Andoni Egañari bigarren saria eman eta gero  
bertso hau kantatu zuen:

*Doinua: Aita izena kanta beharrak*  
*Neurria: 10eko Haundia*

*Lazkano*            Hamar bat mila bertso maitale  
hemen elkartu gera gu,  
telebistatik beste berrehun bat  
kontatu genitzazkegu,  
baratz honentzat ongarri eske  
alperrik zenbat erregu...  
Halaz ta guzti etorkizuna  
seguru ikusten degu,  
goitik euririk ez dator baina  
sustraiak heze ditugu. (bis)

Azkenik, ordura arte Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapeldun izan zenak, Txomin Garmendiak, Peñagarikanori txapela jarri eta honek bere agurra kantatu aurretik ondoko bertsoa bota zuen.

*Doinua: Iparragirreabila dela*  
*Neurria: Berezia*

*Garmendia*      Hara zuk, Peña, jaso dezun  
goien-goieneko maila,  
Anoetatik Donostiraino  
txapel haundiaren bila,  
gorde zazu luzaro,  
buru onean dago.  
Zorion da esker mila,  
euskerara eta bertsolaritzan  
babesa izan dedila!

*Doinua: Santa Barbara zure bizitza II*  
*Neurria: 8ko Haundia*

*Peñagarikano*      Eman didate, nori eskeini?  
Badet i stilu ugari:  
seirak bitarte zai egon diran  
aitatxo eta amari,  
berdin senide eta lagunei,  
berdin honi eta hari,  
eta azkenik belodromora  
hurbildu zeratenori.  
Ez da nerea, zuena baizik,  
ene txapeltxoa tori!



*Txomin Garmendia eta  
Angel Mari Peñagarikano*



*"Eman didate, nori eskeini?..."*



*Imanol Lazkano, EHBE-ko lehendakaria, saria ematen Andoni Egañari.*



*"... gaur bai poltsa beroaz jo nauela danba..."*



Doinuak



*Mikel Mendizabal "doinu aportazio aberatsena" egiteagatik jasotako sariarekin.*

Euskal Herriko azken txapelketako libururako egin nuen eran, Gipuzkoako honek ere doinu arloan eman digunaren azterketatxo datorkizu hemen, irakurle, doinuen eraskin honetan. Nere zenbait oharpen eta gogoeta egin ondoren, doinu guztien zerrenda eta gero ekarpen berriak solfeo z idatzirik ipini ditugu liburuaren atzekalde honetan.

## Doinu erabilienak

123 doinu desberdin erabili dituzte bertsolariek txapelketako hamabi bertso saioetan, era honetan banaturik:

Zortziko txikikoak .....	35
Zortziko handikoak .....	43
Hamarreko txikikoak .....	10
Hamarreko handikoak .....	10
Bereziak .....	25

Hauetako zeintzu izan diren erabilienak bertsozaleari interesatzen zaiolakoan, eta orain arteko liburuetan horrela egin ez badugu ere, doinu bakoitza txapelketaren zehar zenbat aldiz edo zenbat ariketa desberdinetan erabili duten adieraziaz zenbakia ipini dut zerrendako doinu deitura bakoizaren jarraian. Gaurko joerak nondik nora dabiltzen hortxe ikusten da garbien. Anje Duhalde kantariaren "*txoriak eta txoriburuak*" delakoa izan da txapelketa honetako doinu nabarmenena -37 ariketa desberdinetan erabilia-. Askok da hori, doinua oraindik ez dela argitaratu zaharra jakinda gainera. "*Anje Duhalde, Xabier Amurizaren kantari*" izeneko disko-kasetean plazaratua, bertsolarien oso gustoko suertatu da. Eta

baita disko bereko *"agur sagar beltzaran"* ere, hau hamarreko txikikoa eta X. Amurizak asmatua. Zortziko handikoen sailean jarraituz, S. Lizasok azkeneko txapelketa nagusian plazaratu zuen *"arratsaldeon lehendabizitik"* izeneko dator ondoren erabiliene zerrendan. Doinu berria hau ere eta bertso munduan indarrean dabilena gaur egun, eta gero klasikoak datoz: *"Santa Barbara zure bizitza (II)"*, *"eguna pasa nekean eta"*, orain arteko txapelketetan ia erabili gabeak biak, eta bestalde *"Balentin Berriotxoarena"* eta *"Pello Joxepe"*, modatik pasatzen ez direnak, baina aipatzekoa da agian *"loriak udan"* edo eta *"Salbatoreko ermitan"* bezelako doinuak behin ere ez entzutea txapelketa osoan. Zortziko txikien sailean Kaxianoren *"kantatzera nijoa"* doinuak darrai oraindik gailurrean, zenbait bertsozaleren belarrientzat jada aspergarri gertatuaren. Garai batean, Gipuzkoan behintzat, hamarreko txikian ia doinu klasiko bakarra zebilela esan genezake, *"lagundurikan denoi"* izeneko; bada doinu hori erabat desagertu da azken urteotako txapelketetako zerrendatik. Hamarreko handian Amurizarenak dabilta nagusi *"mutil koxkor bat"* klasikoa lagun dutelarik, eta Iparraldeko bi doinu datoz poliki poliki goraka: *"lurraren pean sar nindaiteke"* eta *"bizia ez da nehoiz egoiten"*. Eta azkenik bizpahiru aipamen labur doinu berezien sailari, edo hobeto esanda, multzoari buruz: ez dela "bederatzi puntukorik" batere erabili; dantza mundua eta bertsoena elkarrengandik hain hurbilekoak izanik trikitiako doinuak ekartzeko bi bertsolari albizturtarrek -Telleria eta Peñagarikano- batipat duten joera aipagarria; eta berrikuntza gehienak eta nabarmenenak berezien multzo honetan gartzelako gairako izan ohi dirala, puntu askoko doinuak bertsolariak bere teknika aberatsa erakutsiaz entzulegoa erakartzeko plazaratu ohi duen alegia. Peñagarikanoren *"maitasuna da bizi izateko"* izenekoak izan du harrerarik onena aurtengoan.

## Berrikuntzak

Ekarpen berrietarako, iturri desberdinez baliatu dira oraingoa ere bertsolariak: gaurko musikariak, eta herriko zenbait kantu eta kantutegi tradizionalak. Zentzu zabal honetan esan genezake 24 doinu berri erabili direla ospakizun honetan, zerrendan letra bere-

ziz ikus ditzakezunak hain zuzen. Horietako 15, orain arte solfeo z inon idatzi gabeak, solfeora neuk transkribaturik, hor dituzu ba-koitza bere argibideekin lantxo honen jarraian. Bertsolariek kantu-tegi tradizionaletik edo plazaratu dituzten gainontzekoak berri z ez ditut solfeoz transkribatu, guztiok espero dugun doinu bilduma laister argitaratuko den esperantzan; edozein moduz ere ondorengo hauexek dira solfeo z idatzi ez ditudan ekarpenak:

Aita San Antonio	Jon Sarasuak
Anderea gorarik	Aitor Sarasuak
Hara andregai bihotzekoa	Euxebio Igarzabalek
Itziarren semea	Mikel Mendizabalek
Jesus maitea zan	Martin "Olaso" k
Kintak jarrita ondorenean	Mikel Mendizabalek
Neskazaharrak eta apaizak	Mikel Mendizabalek
Oi amodio berri gartsua	Aitor Sarasuak

Hona bada hemen Gipuzkoako Txapelketa honek doinu arloan ekarri digunaren ikuspegia. Gaurko bertsolaria zertan dabilen eta aurrera begira zein joera ote dituen usmatzeko parada egokia ematen digute era honetako gertakizun kulturelek.

Joanito Dorronsoro





## DOINUEN ZERRENDA

### I. ZORTZIKO TXIKIKOAK

<b>Izena</b>	<b>erabilia</b>
1.- <i>Aita San Antonio</i>	1 aldiz
2.- <i>Anderea gorarik</i>	2
3.- Aranora joanda (sast arretik hasita)	4
4.- <i>Arrautzak ere ditut</i>	1
5.- Bateltxoak kulunkaz	2
6.- Bautista Basterretxe	11
7.- Dama gazte xarmant bat	6
8.- <i>Etzait asko gustatzen</i>	1
9.- Gazte gaztetatikan	1
10.- Gu gera Euskadiko	1
11.- <i>Hainbat aldiz etxean</i>	1
12.- Haizeak bidali du	2
13.- Hamar urteko nintzan	5
14.- <i>Hau entzunda berotu</i>	1
15.- Haur eder baten bila	1
16.- Igaran egun batez	3
17.- <i>Jesus maitea zan</i>	2
18.- Kantatzera nijoa	30
19.- Lurren dena dabil	5
20.- Mando baten gainean	9
21.- Maritxu nora zoaz	2
22.- Markesaren alaba	2
23.- <i>Mi aitite erlojero</i>	1
24.- Minberatu zaizkizu	5

Izena	erabilia
25.- Nere senarrarekin	1 aldiz
26.- Neskazar bat tentatzen	2
27.- Nigarrez sortu nintzen	6
28.- Oilarra kukurruka	2
29.- Orain hasi bihagu	2
30.- Orioko balearena	1
31.- Praixku Galtzarreta (egun batean joan zan)	1
32.- Triste bizi naiz eta	2
33.- Xarmangarria zira	
34.- <i>Zergatik oraindikan</i>	1
35.- Zibilak esan naute	1

## II. ZORTZIKO HANDIKOAK

36.- Adiskidea Andoaindikan (hamaika hola erdipurdiko)	7
37.- Aita Jainkoak egin banindu	1
38.- Andre Madalen, Andre Madalen	4
39.- Ari naizela, ari naizela	3
40.- Arratsaldeon lehendabizitik	22
41.- Balentin Berriotxoaren a	10
42.- Basatxoritxu moko luzea	2
43.- Beste bateko inularrean	2
44.- Beti penetan, beti penetan (hamaika aldiz)	4
45.- Bihotz gureko Tolosa zaharra	1
46.- Dama askoren engainag arri	2
47.- Eguna pasa nekean eta	11
48.- Egun lanerat abiatu zai	1
49.- Emazte baten bihotz xamurra	1
50.- Erreguetan ari nintzala	5
51.- Frantses euskaldun bat etorri zait	2
52.- Gaiso nengoen joan den aspaldian	1
53.- Galderatxo bat egin didazu	1
54.- Garai bateko baserritarra	2

Izena	erabilia
55.- Gazte denboran sasoi eta	4 aldiz
56.- Goizean goizik jeiki ninduzun	3
57.- Haize hegoak hurbiltzen ditu (egun berezi bat gaur)	3
58.- <i>Hara andregai bihotzekoa</i>	1
59.- Hara nun diran, mendi maiteak	7
60.- Hautxo txikia negarrez dago	1
61.- Hirurogeita beatzi urte (utziatzute pakean)	2
62.- Hormatxoriak negu gorrian	1
63.- Kantore berri xarmant batzuek	2
64.- <i>Kintakjarrita ondorenean</i>	1
65.- Nahiz ta hiltzea derrigorra den	1
66.- Nere gogoa egan dijoa	1
67.- <i>Oi amodio berri gartsua</i>	1
68.- <i>Oilaskoi esker eginak ditut</i>	1
69.- <i>Orain bertsoan hasi nahi nuke</i>	1
70.- Pello Joxepe tabernan dela	10
71.- <i>Santa Barbara zure bizitza (II)</i>	12
72.- Sekula ez da sartu izandu	3
73.- Sorlekua utziz gero	2
74.- <i>Txoria eta txoriburuak</i>	37
75.- Uso zuri bat inguratu zait	5
76.- Zazpi aizparen gai den oihala	1
77.- Zeru altuan zegoen jaunak	3
78.- Zuk badakizu gure txikia	1

### III. HAMARREKO TXIKIKOAK

79.- <i>Agur sagar beltzaran</i>	6
80.- Ai gure antzinako	18
81.- Aita asmo hartu det	1
82.- Antton eta Maria	14
83.- Espainian behera	1
84.- Ez dakit txapelketa edo	1

Izena	erabilia
85.- Hamalau heriotzen a	5 aldiz
86.- Lagundurikan denoi (II)	2
87.- Motibo bat nigana	1
88.- Zer da gaur Donostian	1

#### IV. HAMARREKO HANDIKOAK

89.- Aita izena kanta beharrak	25
90.- Bizia ez da nehoiz egoiten	8
91.- Gure munduko bizimodua	1
92.- Lurraren pean sar nindaiteke	4
93.- Misiolari baten moduan	1
94.- Mundu honetan holako gauzak	10
95.- Mutil koxkor bat itxuaurreko	20
96.- Santa Barbara zure bizitza (II)	1
97.- Semaforoak gorri ta berde	5
98.- Sentimendua sartu zitzaidan	12

#### V. BEREZIAK

99.- Aizak hi mutil mainontzi	6
100.- Amak ezkondu ninduen	2
101.- Ambototik Gorbeara	1
102.- Bedeinkatua izan dedila (III)	5
103.- Begira nago jarria beraz	1
104.- Bukatu da bukatu da	1
105.- Dozena bat bertso berri	1
106.- Gai honek badu mamia	1
107.- <i>Gasteizko kinielan</i>	1
108.- Ia gureak egin du	1
109.- Iparragirre abila dela	1
110.- <i>Itziarren semea</i>	1
111.- Leiho ertzetik entzun dezaket	5

Izena	erabilia
112. - <i>Maitasuna da bizi izateko</i>	3 aldiz
113. - Mendingo haritza	1
114. - <i>Munduan libre bizi izateko</i>	1
115. - Nagusi jauna hauxe da lana	2
116. - Nere gorputza dardarka dago	1
117. - Neska zaharrak eta apai zak	2
118. - <i>Oltza da zabal zabala</i>	1
119. - Pozak txoratzen hementxe dago	1
120. - <i>Txapeldunak, txapeldunak</i>	1
121. - Udaletxean badut	1
122. - Uso xuria errazu	1
123. - <i>Usurbildarrei gabon</i>	1

*Oharrak:*

1. Doinu bakoitza Txapelketan zehar zenbat aldiz erabili den adierazten du doinu bakoitzaren ondoren ezarritako zenbakiak. "Xarmangarria zera" doinuarena ez da jari, txapelketa osoan zehar, gajartzaileek puntua ematerakoan erabili dutenean bakarrik erabili delako.
2. Doinu berriak edo eta orain artean bertsotan erabili gabeak letrabereziz idatziik daude.
3. Zenbait doinuren deiturak aldatuak daude "Txapelketa Nagusia 89" liburuaren argitaratutakoetatik. Kasu bakan hauek, ez nahastearren, lehengo deitura ipini zaio parentesi artean.
4. Ondorengo orrietan agertzen dira txapelketa honetan aurkeztu diren doinu berri eta nahiz zaharrak izan solfeoz inon argitaratu gabe dauden pentagramak. Doinu hauek Joanito Dorronsorok transkribatu ditu solfeora.



## 1. - ARRAUTZAK ERE DAUZKAT

A rrau tzak ere dauz kat  
ka lean kol ko an  
hain beste ertzain daude  
gai ne ra on do an  
e rre pu ta zi o a  
da du kat joko an  
be ro tzen zai tuztet  
ta gainera do an.

**Mikel Laboa** kantariak "Lekeitio III" izeneko diska-kasetean **plazaratutako** doinu hau, Karlos Aizpurua bertsolariak ekarri digu bertso mundura txapelketa honetan Deba herri an egindako saioan lau oinak emandako ariketan. Zortziko txikia.

2.- ETZAIT ASKO GUSTATZEN  
(Berriro igo nauzu)

E tzait as ko gus ta tzen  
Ka x ka ren kon du ta  
e to rri au rre ti kan  
e gin du zu rru ta  
ne ro nek i ku si det  
ba so a hus tu ta  
ta o rain he men dabil  
pa pe lak gal du ta.

Xabier Letek kantatzen duen "Berriro igo nauzu" delako doinua, Mikel Mendizabalek plazaratu zigun Oiartzungo bertso saioan lau oinak emandako ariketan zortziko txikira egokiturik.



### 3.- HAINBAT ALDIZ ETXEAN

Hainbat al diz e txe an  
e gin da na go ta  
hainbat le ku tan e re  
be har ko da bo ta  
sa si zi ki rak e ta  
sa tra ka ta o ta  
de rak bo ta behar di ra  
i pur di tik jo ta.

**Mikel Laboaren (6) disko-kasetean datorren doinua.** Altzo Txikik erabili zuen Usurbilgo saioan, lau oinak emandako ariketan. Zortziko txikia.

#### 4.- HAU ENTZUNDA BEROTU

The image shows a handwritten musical score for the song "Hau entzunda berotu". The score is written on ten staves of music. The first staff begins with a treble clef and a common time signature (C). The lyrics are written below the notes. The lyrics are: Hau en tzun da be ro tu, zait ne ri ar na sa, mai ta su na re kin gu, sa rri ge ra pa sa, ba tzu tan o hi de gu, hain bi hotz es ka sa, ta mai ta su na ez da, se ku la jo la sa.

"Joselu anaiak" kantari napparrek beren azken diskan **kaleratu berri** diguten doinu hau, Juan Ramon Gerrikok erabili zuen Antzuolako saioan lau oinak emandako ariketan. Zortziko txikia.

## 5.- MIAITTE ERLOJERO

Miai ti te er lo je ro  
mi ti a jos tu na  
mi her ma no mi sio ne ro  
con mi go ca sa te  
ai mi rame gai xu ak  
e rantzun za zu te  
zer ta ra ko ho ie kirr  
ez kontzen ze ra te.

Jose Luis Urdangarin bertsolari hemaniarrak Usurbilgo saioan erabili zuen agurra kantatzerakoan. Duela lauzpabost urte Azkoitia herriko "Exkerra Anaiek" grabatutako kasete batetik transkribatuen "Dindon Dindon" izeneko kantutxo hau. Zortziko txikia.

## 6.- ZERGATIK ORAINDIKAN

Zergatik oraindik  
nik esan a di o  
naiz txapel ke tak ba - dun  
hain bat kal ba ri o  
ne re a ho tik be hin tzat  
ber tso a da ri o -  
zu ek e san hor ti - kan  
ez ba det ba li o.

Doinu herrikoa. Millan Telleriak Eibaren plazaratua. Lau oinak emanda kantatzerakoan erabili zuen. Zortziko txikia.

## 7.- OILASKOI ESKER EGINAK DITUT

Oi las koi es ker e gi nak di tut  
le na go ko bi ji ra ta  
puntu mordo bat es ku ratzen nun  
be gi ki nu bat ti ra ta  
gu reetxe ko ak bu ka tu di ra  
gaur e gon raiz be gi ra ta  
bai na jarrai tu puntuk ematen  
ar ku mek ja io di ra ta.

The image shows a handwritten musical score for the song "Oilaskoi Esker Eginak Ditut". It consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef and a 3/4 time signature. The lyrics are written below each staff. The score includes various musical notations such as notes, rests, and bar lines. The lyrics are in Basque and describe a song of praise for the Virgin Mary.

"Olaso" k plazaratu zuen Tolosako saioan agurra kantatzerakoan. Amaia Zubiria kantari donostiarrari ikasi zion, behin Euskal Telebistan Imanol Lazkanoren "Uso baten gozo gaziak" bertso-sortako bertso eder bat kantatzean. Zortziko handia.

## 8.- ORAIN BERTSOTAN HASI NAHINUKE

O rain bertsoan ha si nai nu ke  
pru den tzi pix ka ter- es ke  
a bi a du ran i bi li oi- da  
ma ki na bat ko txe- fras te  
e rre pi de an hil di ra hain- bat  
res ka e ta mutil - gaz te  
bi zi a ka s ko ba li o du- ta  
kontuz i bi li zai - tez te.

**Joseba Tapia** trikitilari famatuak txapelketa honetarako **propio sortutako** doinu hau, "Euskitze" bertsolariak plazaratu zuen Oñatiko bertso saioan bukaera emandako ariketan. Zortziko handia.

## 9.- TXORIAK ETA TXORIBURUAK

Bertso berri ak le ge za rre an  
jartze a dut e ra ba ki  
jo la se ra ko su jet bi kai na  
es ku ra tu di dan ba ti  
bertso la ri ak zer zi ren e ta  
zer ge ran us tez ba da ki  
gu re bu ru a e zagutzen du  
be re a baino ho be ki.

**Anje Duhalde kantari ezagunak sortutako doinua.** "Anje Duhalde, Xabier Amurizaren kantari" izeneko disko-kasetean argitaratua izan da (IZ-243) 1990 urtean. Gipuzkoako Txapelketa honetako doinua dei geniezaioke besterik gabe, doinu berria izanarren, denetan erabiliena eta estimatuen a izan bait da. Zortziko handia.

## 10.- AGUR SAGAR BELTZARAN



A gur sa gar bel tza ran  
e do bei le gi a  
a gur be ti ko hi re  
i zar aur pe gi a  
i zan go haiz e de rra  
bai taq de rre gi a  
bai na ez mai ta tu a  
e zin a le gi a  
heuk ez si nis tu bai na  
ho ri dun e gi a.

**Xabier Amurizak** sortutako doinu hau, "Anje Duhalde, Xabier Amurizaren kantari" izeneko diska-kasetean argitaratua 1990 urtean. Sei aldi desberdinetan erabili dute bertsolariek txapelketa honetan zehar. Hamarreko txikia.



## 11.- GASTEIZKO KINIELAN



Gas te iz ko ki ni e - lan  
nik beintzat- ja rri ru en - dos  
ge ro i ku si ko de - gu  
e txe an - la sai bi de - oz  
parti dun e mai tza re - kin  
e a jar- tzen ge rari a - dos  
Re te gik ho gei ta ha ma bi  
e ta Eu gik ho gei ta bost.

Beasaingo saioko azken agurrean Peñagarikanok kantatu zuen trikitiako doinu honetan. "**Kanta batzuek jartzeko**" delako **doinuaren aldaki bat da** noski.

12.- MAITASUNA DA BIZI IZATEKO

Mai ta su na - da bi zij za te - ko  
ar datz e ta oi narri a  
ja kin de da - nez hark ba o men - du  
o rain maita le berri a  
nikez ne ki en jaki nengai - nen  
o men zego en herri a  
garai ba te an i rri a  
o rain mal ko i tu rri a  
o rain mal ko i tu rri a  
ez kon du e ta a sen ai nu en  
maita sun an e ga rri a




Peñagarikano bertsolariak Beasainen egindako saioan, gartzelako ariketan, plazaratutako doinu berria. **Lizartzako Esnaola musika-riak asmatutakoa.** Ondoren Telleriak (Tolosa), Jon Sarasuak (Donostia) eta Peñagarikano berak ere (Donostia) erabili zuten doinu hau txapelketa honetan. Zazpi puntuko doinu egokia.

### 13.- MUNDUAN LIBRE BIZI IZATEA

Mundu an li bre bi ziji za te a  
nu en nik a mets ba ka rra  
bai na i ku si bear i zan di tut  
la ti go ak ba rra ba rra  
no la de montre o nar tu lei ke  
ho rren jo e ra za ba rra  
le na go nu en ne ga rra  
malkoz i tza li txingarra  
on do pentsatzen ja rri ez ke ro  
ez al nu en zo ri txa rra

The image shows a musical score for the song 'MUNDUAN LIBRE BIZI IZATEA'. It consists of ten staves of music in a 3/4 time signature, with a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written in Basque and are aligned with the notes on each staff. The lyrics are: 'Mundu an li bre bi ziji za te a', 'nu en nik a mets ba ka rra', 'bai na i ku si bear i zan di tut', 'la ti go ak ba rra ba rra', 'no la de montre o nar tu lei ke', 'ho rren jo e ra za ba rra', 'le na go nu en ne ga rra', 'malkoz i tza li txingarra', 'on do pentsatzen ja rri ez ke ro', and 'ez al nu en zo ri txa rra'. The music is written in a simple, folk-like style with a mix of eighth and quarter notes.



Zazpi puntuko doinu berria eta Angel Maria Peñagarikanok plaza-  
ratua hau ere. Tolosako saioko gartzelako ariketan erabili zuen.  
"Maitasuna da bizi izateko" doinua bezala, Angel Mari Peñaga-  
rikanok eskaturik, **Esnaola musiko Lizartzarrak propio sortua**  
txapelketa honetarako.

#### 14.- OLTZA DU ZABAL ZABALA

Ol tea du za bal za ba la  
kai o la hau gendu a la  
e san zi te ken do ma do re a  
gaur Mar txe li za la  
zir ko a bu ka tu a la  
li bre ge ra be re ha la  
o rain txe gau de A fri kan dau den  
le hoi ak be za la  
o rain txe gau de A fri kan dau den  
le hoi ak be za la.

Sei puntuko doinu berri hau Mikel Mendizabalek plazaratu zuen Tolosan azken agurra kantatzerakoan. **Imanol Urbietta musikari zarrak asmatua** txapelketa honetarako.

## 15.- TXAPELDUNAK, TXAPELDUNAK

Txapel du nak txa pel du nak  
kanta tzen da o e o e  
da nok en tzuri nai gen du ke  
bai na ba ten tza ko gor de  
o rain a gur tu ta da nok  
bazkal du tze a da ho be  
Oi ña ti ra beintzat o rain  
la sai jo an go ge ra de.

Trikitiako doinua. Millan Telleriak plazaratu zuen Tolosako saioan azken agurra kantatzean.

## 16.- USURBILDARREI GABON



U sur bil da rre ri ga bon  
kan po ko ei hor kon pon  
bai etz gaur na gu si  
zu ek ni i ku si  
ta la sai la sai e gon.

Usurbilgo kantu herrikoa. "**Usurbildarrek daukate, sagardoa al-kate**" izenekoia. Nikolas Izetak erabili zuen bere herrian, Usurbilen, agurra kantatzerakoan. Neurri berezikoia.



## AURKIBIDEA

Eskerrak emanaz .....	5
Hitzaurrea .....	7
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak.....	9
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91 .....	11
<b>FINALERDIAK</b>	
• Tolosa .....	21
• Oñati .....	71
<b>FINALA</b>	
• Donostia .....	121
Doinuak .....	193







ISBN 84-7917-111-1



9 788479 171117